

MARTIN UGALDE

1974 — URRIAK, 6

XXXIV - garren urtea 605 - Zenbakia

zeruko ARGIA

BANAKOLA: OKENDO, 22 - DONOSTIA - TEL. 426666 - PREZIOA: 8 PEZETA

Elkarrekiko arremanetan jartzeko garaia eldu zaie taldeei Jo-muga direnak bide-uts direnetatik berezi behar dira

Bere bi liburu hauek —«Hablando con los vascos» eta «Síntesis de la historia del País Vasco»— izan duten arrakastak eraman gaitu Martin Ugalderengana.

Ez zaigu erraza gertatu Martinen etxea aurkitzea. Donibane Lohitzungo Urdazuri auzoan bizi da, ibai ondoan. Hortxe kokatu behar izan du Venezuelatik erri-minez etorri zitzaizun Martinek.

Alabatxo txikiak ireki digu atea. «Txiki» deitzen dio aitak. Idatzi eta idatzi ari zen Martin.

Berehalaxe sartu gara elkarriketa jorian. Gure herriko giroaz zer pentsatzen duen jakin nahi genuen atzerrian ibili den gizon honen ahotik.

—Itxia ala irekia ikusten duzu euskal gizarteak?

—Bitariketo aukerarik uzten ez badidazu: itxia.

—Nola ikusten duzu itxia etxebarruko dugun gure giro hau?

—Hara, aspaldi hontan, kanpoko giroa eta barruan beharko lukeketan berezi-ezinezkoak jartzen ari zaizkigu, izan ere batzuk eta besteak, denok gurutzaturik bizi gara. Noski, oso ondo habestirik dauden errian artan gu esorik zurtz aurkitzen gara; gure erriko eremu hontan, giroak agintzen duen bezala daude gauzak; beste la gertaera, milagro litzateke. Geroez elkar egiteko ditugun itzak zapuztu eta elkar burrukatzeke ditugunak zorrotzen ahalegintzen bagara, ondorenak txarrak izan behar; milagroa, alderantziz gertatzea litzateke. Beti ohi den bezala, gizonak kasu hontan ez du kanpoko arerio bakarra, gurelako bakoitzak arerioa bere baitan du; askotan, maizegi, bakoitzak gure barruan daramagun banderizio hau ateratzen zaigu, eta, are gehiago, batzuetan jakinean, anaia den inoren aurka xaxatzen ere badakigu.

—Eta gure erri honi kanpotik begira jartzen bazatzaizkio, nola ikusten duzu?

—Kanpotik, diozu... Nondik? Gure erriak kanporako mugaketa-neurriak badira, Munduan zehar erri bezala antzintatik ongi aurkak izan gara, gure aurrekoen merezi-

menduci esker noski; eta gaurko ekintza-neurri ez aintzat artzen gaituzte; gehienetan (eta orain gaurkoaz ari naiz) gure ekintza edo erantzun-bideagatik da, eta ez, behar litzatekeen bezala, sort-neurriagatik. Badugu, bai, izan, Oteiza aundi bat, eta Chillida bat ere bai, gure emaitza erakusteko; baina Euskalerriak ez du gure gaurko ukabil-esku gogorra besteko bat gara. Noski, oso ondo habestirik dauden errian artan gu esorik zurtz aurkitzen gara; gure erriko eremu hontan, giroak agintzen duen bezala daude gauzak; beste la gertaera, milagro litzateke. Geroez elkar egiteko ditugun itzak zapuztu eta elkar burrukatzeke ditugunak zorrotzen ahalegintzen bagara, ondorenak txarrak izan behar; milagroa, alderantziz gertatzea litzateke. Beti ohi den bezala, gizonak kasu hontan ez du kanpoko arerio bakarra, gurelako bakoitzak arerioa bere baitan du; askotan, maizegi, bakoitzak gure barruan daramagun banderizio hau ateratzen zaigu, eta, are gehiago, batzuetan jakinean, anaia den inoren aurka xaxatzen ere badakigu.

—Uler-bide bezala asmatuta egin dituzun zure azken bi liburu hoiek arrakasta aundia izan dutela dirudi.

—Bai, eta poztu ninteke hontaz. Hablando con los vascos lehenengo, agortua da, eta bigarrena, Síntesis de la historia del País Vasco, ere bai. Azken hontatik Donostiako liburu-denda bakar batetan mila ale saldu direla esatea nahikoa da. Bigarren agerraldia prestatzen ari dira, esan didaten.

—Zergatik idatzi dituzu erderaz?


—Behin baino gehiagotan egin didaten galdera. Bestetan bezala, xuxen-xuxen erantzunago ditut: Baretik; ni ogeita bost urte kazetari eta idazle bezala Venezuelako lanean ari naiz; honek betiko

markatu nau, noski, eta batez ere pelota-jokuan eskuinak duen antzeko gaitasun bat eman dit gaiteliaz idazteko; ezin zitekeen bestelako milagrorik gerta; hala ere, erbestaldi luze hontan, beste kazeta-lan askoz gainera, lau liburu-irratia idatziaz ditut euskeraz, eta erderazko beste batzuetan euskera izan dut barruko akulu bakarra; gaur, euskera-lan batzuetan ariaz gainera, gure erriko behar batzuk larru-gorrian ikusi ditudanean, gai hometarako ongarririk iruditu zaidan erderazko bidea artu dut. Hontaz, egia esateko, Euskalerriaren historia labur hau aspaldi dago beste lagun batzuk euskeratua eta ikutu baten zai (nere lehenengo asmoa aurrea euskeraz ateratzea izan bait zen) baina, hara, erderazkoa da lehenik irten. Bestetik; nik, eta kanpoan luzaro egon naitzelako nontait, gure errian bizi ez direnen asmoak ditut oso kontuan; bakarririk egin dezakeguna asko bada ere, ez da nahikoa, eta Espainiako jendeak euskaldunen berri gure esku eta buru bideez jakin dezan salatzeke beharra ikusi dut; eta, kontuz, gure erriko zenbait eraldun ere sartzen dut lo aundi hau betetzeko kezak auzumehen. Ikusten dazun bezala, zurrera artu dit. Badut euskerazko lanik buruan, eta dagoeneko eskutuan ere. Aro bakoitzak bere fruitua eman ohi duen moduan itxoin beharko nik nere idaz-sasoiok.

—Goazen fruituak eskatzen ari den beste aro batetara: bai ahal da uen hontan, zure uestez, gainontzeko politika-taldeekin mahai baten inguruan, eskubide eta indar berdinez, elkarriketara eta arremanetara bil daitekeen euskal talderik?

—Talde bat esatzen duten buruek erantzun behar duten gauza da hau. Hala ere, nik nere dena (ni tarteko naizen taldea alegia) buruan dudala nere asmo pertsonal bat besterik ezin ditut hemen eman. Giro makala salatu dugu hemen lehen, gure elkarren arteko arremanetan, eta honek ez ditut taldeenberbideak erazten; eta taldeak non-nolako eta noraino-berak diren ikusten laguntzen ere. Mugaketa atundiki ditugu, beraz, elkar aditzen jartzeko. Hala ere, gaur erantzunpidi edo errespontabilidade bat erakusten duten taldeek elkarrekiko arremanetan egiaz jartzeko garaia eldu zaie, eta dagoeneko asiak izatea ere baliteke. Nik ueste, gure arteketan, eta gaitzentekeotan ere bai, noski, ezin dira gauza guztiak uen berean eta ongi egin, eta hau nahi izan dutenek edo oraindik nahi dutenak jai dute. Nondik asi, ordea? Lehenengo lana, nere uestez, jo-muga direnak bide-uts direnetatik berez-

—Euskerak batuz ari zara orain... —Nik ikusten dudana bide zabala euskerak batua da, noski. Ezin du gu egoera larri hontan ahulduta dagoen gure izkuntza berez errian, eskola gabeko gure errian, itzegi-



dartsu bat osatzeko behar den irekitasuna da lehen galdera egin ditudanean buruan nuen.

—Irekitasunari buruz aipatu ditugun oztipo berak ageri dira berri hemen; eta berezi ditzagun; batzuk gureak dira, eta gure korapilo hoiek askatzen saiazea gure lana da. Behar bada abiatua da dagoeneko gure erria zentzu-bide hontatik. Hala bedi.

—Zer diozu euskal kulturaz?

—Gaitzenteke bezala, babesa (Mitxelena dieon instituzionalizazioa) behar duela. Lehen mailako behar gorri bat, Unibertsitatea da.

Ikastola bideak (eta gure erriko amaika giza-emakume isili esker, eta gure apaizei aro hontan zort dioguna ere aipatu behar) aurrera ditzagun, eta behar eta ain merezia duten laguntzarekin aia ugalduko dira; baina Unibertsitatea da gure kulturak duen jo-muga nagusi-nagusia gaur. Gure erriko aberatsak ez du gure erriko jendeak joka duen bezala jokatu, eta esana egia bada, ifernuko laratz bihurtzeko unean dagoela esango nuke. Gero, erri-komunikabide gaitzen laguntza behar du gure kulturak, batez ere telebista.

—Eta euskal kazetaritaz, zer?

—Egin dena ez da gutxi; hala ere, bide zabal baterako lanean ari beharrean bide zidorra urratzen ari gara, eta honek kalteak ekarri ditzake.

—Euskerak batuz ari zara orain... —Nik ikusten dudana bide zabala euskerak batua da, noski. Ezin du gu egoera larri hontan ahulduta dagoen gure izkuntza berez errian, eskola gabeko gure errian, itzegi-

terakoan gorde diren lau-bost euskaltian batera landuaz indartu. Hau oso polita litzateke, eta nahiko nuke nik ere; baina bixtan da ezina dela. Gauza politik utz ditzagun indartzen garenako.

Gaur-gaurkoz iraun-bideak dira, nere uestez, lehenetasuna dutenak. Euskerak batua non, noiz eta nola koetan daude, nere uestez, oztipoak. Aur-neurriak, komunikabideak eta landu edo sor-lanak ez dira berdinak; hemen behar dugu buruz jokatu. Baina izki bat gorabehera armatzen ari garen itxiluak lurperatuko ez bagaitu, gure erantzun-beharak lepoan artu eta aurrera jarraitu beharko dugu.

Bakoitzak bereak artu beharko ditut, noski. Nik nere aldetik, eta agerian, idatzi-bidez, gaila ondo aztertu eta gero (Zeruko-Argian idatzi nituen zortzi elkarriketa: Le-kuona, Lafitte, Mitxelena, San Martin, Intza, Salustegi, Akesola eta Kintana-rekin eginak) erri barruan bizirik gertatzen zaizkiguen arteko euskal instituzio baten iriztia, ez agindua, onartu nuen, eta ordurarte erabiltzen ez nituen molde batzuk artzen ahalegintzen ari naiz. Gure euskera bizi dandin, bide zabal eta herri bat behar dugu egin denon artean. Jo-muga nagusi-nagusia honek denok behartzen hori nolabait, baina euskera egiaz maite duenak behar luke bide zabal hau onartzeko norberaganakoa dugun maitasun edo amor-propio hori jinnasiea egiten jarri. Orduan, bai, zuk aseran aipatutako eta ain beharrezko dugun gure erri-giroa irekiko litzazuke.

ERRIALDE

NON ZER

**Dama batek jartzia
orrenbeste lege...**

Mitxelena . . . 3 gn.

"Justitia et Pax"

en oharra . . . 3 gn.

**Joan Miró, Picassoren
ondorengo**

Kortadi . . . 7 gn.

—Honetarako talde aundi eta in-

IV ZEPAI SARIA

XENPELAR SARIA

Ez dugu aipamenik egiteko tar-terik ere izan. Ospatu eta hilabe-tera aipatzen dugu. Jean Pierre Mendiburu heletarrak atera zuen lehen saria, 12.000 pezeta saria. Bigarrena, Ahetzeko Martin Tre-kuk, 8.000 pezeta saria. Hirugarrena, berri, Segundo Kalonje do-nostiarak.

Ikusten denez bestaldean daude bertso jartzailerik onenak. Xalba-dorrek eraman du orain arte le-hen saria agertu den guztietan. Aurtan, berri, Mendiburuk. Ahe-tzeko Martin ere ez da atzean ge-ratu.

Bertso hauek irakurri nahi lituz-keen bertsozale asko dago. Ez die-gu mesede hori ukatu nahi gure irakurleci. Mendibururen ARRO-SAKO ZUBIAN deitu bertsoez ha-siko gara.

IV. ZEPAI SARIA

Goizean Ursuaranen eta arra-tsaldean Idiazabalen jokatu zen IV. ZEPAI SARIA, Irailaren 29an.

Hogeita bi bertsolari auzaldu zi-ren sari honetara aurreneko igan-dean. Hamar hauek geratu ziren bigarren iganderako: Iraola, Zebe-rio, Lexoti, Zabala, Agirre, Ziolar, Zendoia, Aitola, Narbaiza eta Goi-buria.

Epai-mahaikoak: Olea, Bordari, A. Zabala eta Luzio Gabiria.

Gai-jartzailea: Jexux Azurmen-di.

Eguraldia nahiko hotza aterpe-rik gabeko lekuan egoteko eta jar-duteko. Eskerrak ateri egin zuena-ri. Bertso-entzule asko, arratsalde-z batez ere, Idiazabalgo plazan.

Txapeldun: Zaldibiko Iraola.

Bigarren: Oiarzango Lexoti.

Eguneko bertsolari onenaren sa-ria: Elbarko Juan Mari Narbaizak.

Oso ona izan zen igandeko ber-tso saioa. Hobetzen joan ziren ge-hienak arratsalderako. Zorionak denoi eta batez ere zuri, Iraola.

Ez dugu berri zehatzagorik ema-teko lekuri eta Iraolaren hiru bertso ezarriko ditugu. Goizean Ze-beriokin egin zuen saiokoak ditua-ri esan eta gero dantzaetokian zu. "Datorren igandera arte" elka-egiten dute biak topo. Hauek eran-tzuten diskio Iraola andregaiak bere senargai Zeberiori:

I

Neri deitzen didazu
neskatx berriak.
Zu-re partidakoan
zifaden txintxa.
Bainan dibertizalea
zera sutsua.
Senargia, zu ere
nere berdintsua.

II

Beste bat billatzeko
dezu egarria.
Orrara etorri zerala
nago igarria.
Ta nik ere kalte al det
topatu berria.
Ez uste zure bilha
naizela etorria.

III

Gaur partidakoan
ninduzun gogoko.
Bik ez al gerade
gu era bereko.
Zurekin otxanduta
ni ez naiz gerako.
Zeberio, ez didazu
adarrikan joko.

MENDIZABAL I-URTAIN IV

Apustu gogorra eta estua. Mar-ka izugarriak. Jende gutxi. Egu-raidi koxkorra.

Mendizabalen harriak 200 kilo pisatzen zituen.

Urtainenak, 193, 750, arroa erdi bat gutxiago.

Seina minutuko hiruna ekinal-dietan erabakitzen zen jokoa.

Mendizabalek 28 aldiz jaso zuen. Urtainek, 27 aldiz.

Bada zerbait.

Hona markak:

MENDIZABAL I

1. Ekinaldian

1 en 10"
2 en 57"
3 en 1' 36"
4 en 2' 18"
5 en 2' 58"
6 en 3' 35"
7 en 4' 11"
8 en 4' 43"
9 en 5' 14"
10 en 5' 51"

2. Ekinaldian

1 en 8"
2 en 53"
3 en 1' 33"
4 en 2' 13"

5 en 2' 55"
6 en 3' 34"
7 en 4' 51"
8 en 4' 50"
9 en 5' 18"
10 en 5' 52"

3. Ekinaldian

1 en 8"
2 en 56"
3 en 1' 36"
4 en 2' 23"
5 en 3' 13"
6 en 4' 00"
7 en 4' 43"
8 en 5' 28"

URTAIN IV

1. Ekinaldian

1 en 10"
2 en 52"
3 en 1' 40"
4 en 2' 18"
5 en 2' 52"
6 en 3' 39"
7 en 4' 17"
8 en 5' 02"
9 en 5' 47"

2. Ekinaldian

1 en 11"
2 en 46"
3 en 1' 21"
4 en 1' 58"
5 en 2' 49"
6 en 3' 22"
7 en 4' 00"
8 en 4' 47"
9 en 5' 20"
10 en 5' 58"

3. Ekinaldian

1 en 11"
2 en 47"
3 en 1' 19"
4 en 1' 51"
5 en 2' 34"
6 en 3' 51"
7 en 4' 35"
8 en 5' 34"

MUTIOZABAL

Arrosako Zubian

Airea: Lurraren pean

1)

Arrossagaray, aipatu duzu Lasako gazte lagun bat
Ta lholdiko auzapez zenaz mintzatu izan da Alkat
Ene aldia etorria da, bertsu trixte zonbeit daukat
Deusek ez bainau koropilatzen, itxirip batzuk bezenbat
Bertsu doloros hauk badoatzi gaur Arrosako zubirat.

2)

Ez dut hain maite berri hitsetaz bihotz guzien lastea
Gai peningarri batzuez hemen bertsu ezar-araztea
Deltoragarri litake ere aipatu gabe uztea
Bi soldado hil, bat ezkondua, bertzea mutil gaztea
Nigarrez direlarik aitamak eta baten emaztea.

3)

Errekontrua zoin den dorpea ezin ditake sinetsi
Kolpatuak hor hamabortz ziren ta biga urak iretsi,
Adin hoberen paregabean, ezin baitugu onetsi
Beren biziaz behar zutela, hoin gazterik hartu etsi
Behin betikotz dituztelarik beren bi begiak hetsi.

4)

Hilak hil dira ta kolpatuak, gaixoak, zer maneretan
Sofrikario ezin jasanez dagotzinak nigarretan
Ez ditzagula egundik harat ahanzt gure otoi-zetan
Zer egun beltzak eta ilunak badiren mundu hunetan
Zer oinaze, min, ezin erranak badiren familetan.

5)

Mundu hau hola duzu denentzat, badu irri eta nigar
Ezin da erran geroak zer ote diron guri ekar
Laster ahultzen baita jendea izanikan ere azkar
Jainko onari, kartsuki orai dugu otoi-z egin behar
Bi soldadoak bere ondoan zerbitzari ditzan onhar.

6)

Bide bazterrak zoin lanjerosak, dena muga ta hesola
Gune itsuak nun nahi eta dena hesi ta arbola
Kargu dutenek izan bezate gauza horiez axola
Izanik ere, ez dakit zer den bezain kario petrola
Karioago baita miletan hiltzen direnen odola.

7)

Sortuz geroztik nahi gabea nehorik ez baitu arrotza
Denek dakite dolunaren iturria zoin den hotza
Aitama batzuk ez dute geio entzuten bi gazten botza
Zer ukaldia, zer trantsidura, zer salbaikeri zorrotza
Hoin gaztedanik, lurperatzea, maite denaren bihotza.

Jean Pierre MENDIBURU
Heletarrak

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritzza saillean

ZUK AUERRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI!
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak
eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi
Aretxabaleta
Elorrio
Barakaldo
Ondarroa
Andoain
Plazentzi
Oñati
Ormaiztegui
Beasain
Gernika

Zumarraga
Elgoibar
Markina
Bergara
Altsasua
Elbar
Tolosa
Pasai San Pedro
Errendel
Billabona
Gasteiz

Bilbo
Legazpia
Irun
Durango
Amorebieta
Azpeitia
Emari
Zarauz
Sestao
Ordizia
Antigua -Donostia-

Ermua
Eskoriaza
Izarra
Ondarrabia
Gaitzaberda
Lekitio
Llodio
Recaldeberri
Agurain
San Andrea
Azkoitia

Mungia
Yurre
Bermeo
Lasarte
Enanderien
Santurce
Zumaya
Donostia
Iruiña
Deba
Anzuola

GIBELURDINAK
DEBAN?

DEBA



OLBAGATA

EUSKAL HERRIKO ZAHARRERARI

Oraindik orain "Euskal Herriko Gazterari" eskaini genion gure idazlantxoak. Joannes Etxeberriren hitzak gogoratzen genizkion: ez zedila "Marteren suzko eta kharrezko joko, eta harrabots izgarrietara" makur, alegia.

Geroztik idazlantxo bat hartu dugu ohar honekin: "Egia da, Mi-nera bazterturik, "Marteren suzko eta kharrezko joko eta harrabots izgarrietara" makurtuegiak direla. Halaz gutziz barkatuiko ahal didazu. Gogoan har ezazu Etxeberriren deia gazterari egina zela eta ni aspaldian zaharrieraren alderdikoa naizela".

Hala zankoa! gazteak ez ezik zaharrak ere emanak ditugu "gudura eta gatazkara". Ez da giro.

Besteak baino gehiago izan nahi duen eta horretarako besteak azpiratzeo eta zanpatzeo prest dagoen jauntxo bat darabazu denok, barruan bizi bizirik. Demokrazia aipatzen dugu denok itzetik hortzera, baina ia inork ez du demokraziaren joko eta lege-rik onartzen.

Ez goaz hemen noizbehinka, ezinbestean, bakarra edo taldea hartzen diren erabakien arka. Zenbait aldiz ez dago herriari galdetzeko betarik, herriak ez du hitzgeteko aukerarik. Herriaren izenean eta ordean erabakien bat hartu beharrenean aurki gintzekie inoiz.

Baina ahal dugularik herriak berak bere erabakiak har ditzala saiatu behar dugu. Edozein aginte lardetako ere herriaren izenean eta ordean ari dela esanaz zuzitzen du bere burua.

Gehiengoaren iritzira jotzen ikasi behar dugu. Gehiengoak erabakitzen duena onartu behar dugu. Gaur oso gutxiak eta banaka batzuek ditugun iritzioak, gehiengoak har ditzan lan luzea egiteko, besterik ez dagokigu gehiengoaren sailetik kanpora aurki gintzekeneoi.

Badakigu, jakin, ez gabiltzala demokraziaren joko eta legeetan. Badakigu ez dezagula joko hala bageundez bezala. Baina gure esku dago demokraziarako bidea sortu ala ez sortu.

Ez dezagula, arren, herria, artaldearen gisa, otzan eta eskurakoi bihurtu. Oso artaldeko egin eta edozeinek jo diezakeen txistulari jarraitzen zuten herria. Beharko ditu herri horrek txistula joko dioten diariak eta pizon anastak. Bada de-adarra jotera beharturik dagoen jenderik. Herria ez litzaioke itsumustuan jarraitu behar, ordea. Eskatzen zaila da aztertu behar du ondo. Txistuaren hotsa ondo berezten eta aztertzen irakatsi behar dugu herriari, herri horren hezle eta gidari on izan nahi duen txistulariak.

Baina gutxi honek zabalbasun haundia eskatzen digu denoi. Burrestua eta ipurtestu gehiegi dago gure artean. Gero petralean bizi gara. Hitz potzoleo eta esaldi borobiliez izurritzen saiatzen gara herria. Gure ahoa eta luma mizto eta ezten zorrotz bilakatu dira elkarrentzat.

Ateak itxi dizkiogu demokraziari. Eta honetan ez ditugu eredu jator, zaharrieraren sartu diren zentzai. Zentzaitik ez duela kontuak eskatu eta sakatu beste eginkizunik dirudi. Zeregin hau da: herri-erako sortu dela dirudi zenbait aldirakari.

D. Joxemiel Barandiaranek esana omen dena gogoratzen diot zaharrierari: "Ez gaitzelza txikiherietan gal. Irakatsi diezagula gazterari urtean eta salatzearen poderioan hartu dugun jakinduria eta eskarmetua".

"JUSTITIA ET PAX" EN OHARRA

"Justitia et pax" deitu batzordearen izenean izenpetutako eskutitz batek zabalokunde haundia izan du komunikabideetan. Bertan, batzorde honek ez duela barkatzen oso eta orokor baterako izenak biltzeko ekintzarekin zerikusirik esaten da. Honela dio zabaldu den eskutitzak: "ZUZENA ETA BAKEA" deitu batzordeak ezin dezake utz bere izena erabiltzen legea kanpo dauden politikoa taldeen azpijokarako" eta "garbi jarri nahi du, nahasketak desagileko eta herriaren ueste ona ez lausotzeko, ez duela zerikusirik une honetan egiten ari diren firma-biltzeaz".

Hau dela eta, Batzorde hau beharturik dago argi eta garbi hauxe aitorzera:

1. Zabaldu den eskutitz hori ez da Batzorde honena; horren egileak izkutan eta gozurrez erabili dute gure izena.

2. Egia da "ZUZENA ETA BAKEA" deitu batzordeak, nahiz eta alperetako eskutitzak ukatzen badu ere, jendea nahastearen eta denon ueste ona lausotzearen, firma-biltze ekintza bati ekin diola Gotzai El-

kartearen lehendakariaren bidez, politika eta kontzientziako errepertoiretik sortzen diren jokabideengatik herbestearturik, gultzaperaturik edo zigorturik daudenen alde Estaduko Buruzagiari barkamen osoa eskatzeko asmoz.

3. Jakinararen gainean eduki ditu beti ekintza honetaz Eliz-agintariak eta "Alta Santuaren Batzordea", eta indarra eta gogoa ematen duen hitzak besterik ez ditu jaso. "Alta Santuaren Batzordeak" hau-ze biduali de Nazioetako Batzorde denei Mons. Andrés de Montezómelo idazkari nagusiaren bidez: "Adiskidetze Urte Santuaren barruan "amnistia"rako ekintza zabal bat eratu dugu Espainiako "Zuzena eta Bakea" batzordearen erenplua aipatzea asarutzen gara".

4. Egokiera hau "amnistia" eskatzeko eginkiz daukan eskutitzia izenpetzeko dei bat izatea nahi luke Batzorde honek eta lan hortan aurrera jotzeko asmo sendorik eusten diola adierazteko.

"Zuzena eta Bakea" batzordeak

DAMA BATEK JARTZIA ORRENBESTE LEGE...

Badirudi, irudikorregia ez banail, kargu hartzen datorrikala Amale, non eta Agur-en, bere aitzaz esan niten zenbait gauza direla medio. Egia da, bai, erdaraz eta Ugalde- ren bitartez, eta ez naiz Mikel Ugalde bakesu eta bagegileaz ari, mintzatu naizela oraingoan. Lehenago, ez naiz aspaldi, horrelatsuko zenbait idatzia nuen euskaraz. H- d- un euskaraz, ordea, eta Amalek ez bide ditut. H- d- un euskarazkoak irakurtzen, h- d- un erdarazkoak nahia ditutelarik.

Ezin bestean esan niten orduan, eta ezin bestean esaten ditut berriz. Ebanjelioan agindua dagoen legea jokatu zuten Luzearek: "hark ikhik erazten du bere iguzkia galitzen eta ongi gainera, eta hortan duen luza luesten eta inlustoen gainera". Leizarragak itzuli zuenaren arabera. Inoiz edo behin, gaitzok ere esker oneko izan gaitzek, eta nik ez nuen gaitzerupean gorde nahi, bekatu larrien barkagarri. Amaleren aitagana dudan zorra.

Bestek ez dakit beste horrenbeste egin duen. Ikus, adibidez, Añamendiren *Enciclopedia general...* B. III, 295 eta hurrengoetan, Luzearri buruz datorren berria. Begien bistan da zer bait, eta zer bait baino gehiago ere bai, falta dela hor. Esate baterako, *El Dia*-ko "eus- kal orriaren" zuzendari izan zela urtea joan eta urtea etorri, egun- kari horretan argitara zuela Dic- kens-en *Christmas Carol* euskaraz, eta gainerakoak. Ez da aipatzen Eusko-Doyn-en bestetan idatzit zue- nik. Ez da ere agertzen nik 1960an esaten nuenek frankok ezagutzen duen argitara gabe dagoen argitara gabekik. Ez da inolaz ere harritze- ko Añamendikoak horrelakoez ez oroitzea; harritzeoko da familiak ez oroitzeaz. Onak eta etxeokoez egin ez dutena, beraz, gaitzok eta arrotzek egin beharko.

Integrismo delakoa gora-behera, eta horrelako gaietan nork bere iritzia ditut, ezin erantzun dezaket. gertakizun zitezkeenek ezaguerarik ez dudanez gero, Amalek egiten

didan galdere. Ez dakit, egia esan, zer pentsatuko lukeen Luzearek ene geroko jokabideaz. Ezta ere, gogoan dudana osorik aitoru be- behar badut, zer irudituko litzaiokeen bere alabarena.

Ditudan bideak eta adiskideak egotzen ditzit honek, lotsatuko nai- zelakoan. Hemen ere, oker ez ba- nabil, ez darabil euskarra behar lu- keen bezain zehazki. Ene erdaraz- ko zenbait itzultzean bezalaxe. La- gunak, euskaraz, ez dira nahi eta ez adiskide, eta adiskideak, batez ere politikari arloan, ez dira lagun nahi eta ez. Eta hor ez da Amale adiskideez ari, nork bere adiski- deak hautatzen baitit, lagunetz bai- zik.

Ba, orduko eta geroxeagoko la- gunez —Burgoskoek, Burgos baino lehenagokoek eta ari Luzeaz hil zen garalakez— zenbait jakin nahi baldin badu, mundu osoak dakiena, edo jakin behar lukeena bederen, esango diot. Hark eta nik genituen lagunak nabar xamarrek ziren: As- tigarrabia eta Paulino Gómez, bes- teak beste. Eta nik lagun baitnuten, Amaleren aita eta honen kideen erabakiz eta aginduz niten lagun.

"Pintar como quer" esan ohi- dute erdaraz. Eta badirudi, oroitze- zaren poderioz, geure arestiko kon- daira aldatu beharrean gabiltzala. Horrek, ordea, ez du aldatzerik, gertatu dena desgertatzeazko duen mutirik nahiz neskarik ez baita- jaito. Kondaira hori, alde batetik, guk egin genuen, onerako edo gait- zerako; ez bestetik ibili ziren Ar- tetxek eta Artetxeren lagunak. Lu- zearek eta Luzearen aldamene- koek egin zuten, nik ere hartan parte nuela, beste askoren artan. Eta ez dut sekula esan ez esango erakutsi zidaten bidea gogo gaitz- toz hartu nuenik.

Honi datzikola, hitz bi eskaini nahi nizkioke, guztizko begirame- nez, Alta Yurreri "guda galdu ta gero" gertatuei buruz. Gerra galdu zutenak, baldin hitzek indarrik ba- dute, galduan gerra egin zutenak dira. Bestela esan, galduan gerra egin genuenok eta ez, esate bate- rako.

ballia eta soñu ederre- k engañaturik, bestetara jo zutenak, Bizkaira be- harrean. Erantzunbehar hori, oso- osorik, gure bizkar dugu, eta geure bizkarrean nahi dugu eduki, ez beste inorenean. Nahi dutena diote- la zenbaitek aspaldianik ezagun- dugun Ramos Olivearik, gero- ko Talon eta Peynek, eta ahoa orain- dik aski zabaldu ez duen Elortzak. Orobat begien aurrean daukatena ukatzeko prest ditugun geure arte- ko nahastekariek. Ahalekin nahiz ohoragarri, egin zirenak egin ziren, eta egin zirenen ondorioa ez dute gero- ko urteak deuseztatu.

MITXELENA

HIRI, ATXUNDAR GAZTE HORRI

Joxe Miel Barandiaranen lehen jakintzaldia dela eta, Irailaren 9tik 29ra, eratu dituzte eratu, hainbat egunetan zehar zenbait hitzaldi, mahai-inguru, abesti saio eta ber- toso jaialdi. Ateandarek badute honetan inork izatekotan gazte eta piperra.

Hitzaldi bat edo beste debeketua izan arren, ez zen hori gertatu Irailaren 14erako programatuta zegoen Lertxundiren abesti saloaz. Eta gauro honetan jaialdi honi eta he- men gertatuari lotuko nartzat.

Horregatik, eta horregatik baka- rrik, artikulu hau hiri zuzendua zi- hoak. Hiri izan ginen denok hitz- aldi gazte haizen horri. Baina bide batez ZERUKO ARGIAren irakurle- guztiei jakin ari nahi ziet han gertatutako gauzen berri.

Bi minutuko itxialdian eman zi- tzen jaialdia hasera, eta presen- tadoreak esan ziguzen jaialdi hura ez zen bakarrik kantu hutesz bete- rik izanen, baizik eta Lertxundiren bizitzako zenbait urrats edo bestez ere, kantuen esan nahiez, eta aba- rrez.

Lertxundik esan zigun gero, ez zuela berak gehiegi hitzegin nahi, hitzaldi tankera hartuko baitzuen jaialdi haren. Baina berari tonake- ria bat irudituarren erantzun zio- la antolatzaileetako gazte batek (borondate onenarekin) egin zion galdetari.

Ea kantu zaharrak zergatik kan- taten zintuen? Herriari ezer esaten ote ditoten?

Lertxundik, erantzuna, hitz gutxi- tan eman zuen. Abeslari gustatzen zitzaiokeko zela, eta herri menpe- ratu guztiek beren historian, eta arbaso zaharren ezaugarrietan oinar- riturik zuzendu izan dutela borro- ka. Euskelerrri, honetan ere, dife- rent dirudi.

Lertxundik jarraitzen du. Bera, eskotan gehiago kontzientziatu du- dela kantu zaharrek oraingo kantu moderno aske baino. Eta Añanen zuekenez beste hau ere esan be- har zuela. Kantu zaharrak aitzertze- a Herriagatik ezer egitea ez bazen, ea zer arazo egiten zuten Bera- ndiaranek, hainbeste urtetan zehar, gauza zaharrak aitzertzen.

Beste hau ere esan zigun, ordea. Berak bazuela ideologia bat, eta gehienok garen bezala bere ideolo- giaren zerbiztari zela, eta kantuek ere ideologia horren zerbiztuan ipintzen zituela. Eta horrela goiko erantzun hauek emanez hasi zen berehala kantatzen. Aitaratzeko jauna, Mariasol ta Kastero, illun- petako gizona, Gure bide galduek, eta gogoratzen ez naizen beste kantu zahar eta berri batzuen on- doren hamarbat minututako atse- den izan genuen.

Bigarren zatia hasi bezain agudo kanguro urdin bat soinean eta txo- noarekin burua estalirik zeraman gazte bat aurreratzen da eta mi-

krofona harturik denok kalera ir- tetzeko agintzen dugu. Lertxundiri, mesedez, etxera joateko esaten di- tontzenen aritu zen abestiek ez bai- tzioten batera onik egiten hiltzen ari zirenei.

Jendea erabat bildururik kanpo- ra ateratzen hasi zen, eta, nere uestez, gehienak gogoz kontra ate- ra ziren, eta horrela jaialdia buka- tu zen.

Badirudi, lehen jasaten dugun agintekeria gutxi delarik beste bat ere jasan beharra izanen dugula hemendik aurrera.

Gizona gero eta askeago izan dadin borrokatzen ari den bitar- tean, hemen Euskel Herrian jendea borrokatzen ari gara jaialdietatik ir- tetzera eta etxera joatera.

Aha...! Baina ahaztu egin zait, bortsaketa hauek euskal jaialdi- etan egiten dira bakarrik, hauek bai- tira jendea loarrazten dutenak. Be- raz, Beasaingo Sunday-n edo Zu- maragako Goldenen larunbatero izaten den jendea, jadanik zeharo kontzientziatuta izanen da. Bapo mutillak.

Lertxundiren kantuek ez diotela onik egiten hiltzen ari direnei? Ez genekien, guk bederen, Lertxundi- ren abestiek talde konkretu bati on- egitearen edo ez egitearen arabe- ra onartu behar zirenik ez eta tal- de konkretu horietatik mingots ia- nik guretzat ere izan zitezkeenik eta isildu behar zirenik ere. Dena dela, badakik Benito zeini kantatu eta, kontu izan on egitea, bestela hire salorik entzun gabe izanen gaituk aurrerantzean.

Eta, ez genekien beste hau ere. Hortik zehar ikusi ditugun orri ba- tzuek jartzen dutena, alegia. Zen- bait abeslari eta bertsolari bai- mena ematen zitzaizela sakonago di- ren beste problemak estaltzearen. Hortaz Bizkaiaren, gugandik ikaraga- rrizko abantailarekin dabilta zeren %10-entzako baino baimenik ez bai- tutek lotzen, eta aurreko erregelak hori baldin betetzen bada, Bizkaiko agintariak problemarik sakone- nak begien aurrean ipini nahi di- tuzte. Ez dut ueste gauza hori hain inplexki azalduz paperean jarri eta zabaldu daitekeenik.

Gauzak horrela direlarik sobran zarete gehienetan bertsolariok, so- bran zarete pilotariok, sobran haiz- kolariok, eta sobran bai euskal kul- tura lantzen ari zareten guzti guz- tiok. Ez ahal dugu elkarren erres- petu gehiago merezi?

Derrigorrez, denok pentsaera bat izan behar ote dugu?

Euskal jaialdien ordeaz, erdaldu- nak oraindik gehiago ugaltu behar ote zaizkigu gure herria salbatze- ko?

Hirugarren urtean ere berdin ger- tatu behar ote zaigu Añanen?

ERANTZUN BEZA BAKOITZAK, URI-ZAHAR

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGUITA

Nafarroa, Kantauri eta Ara- goiko Kaputxinoek argitara- tua, (Kale Nagusia, 50-1.º Bur- lada -IRUIREA).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:
Barruan 350 pezeta
Korreo batasune- tako herrietan 400 pezeta
Atzerrietako bes- te herrietan 420 pezeta
Airez Alduz aurre- tik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta
Moldiztegia eta Idazkolo: "Gráficas Navasali"
A. Adoain, 1. IRUIREA
D.L.: NA, 80-1963

berriak - berriak - berriak

Aurten ere, **"Eskualzeen Biltzarra"** Lapurdiko Saran ospatuko da. Ipar Euskal Herriko eskualze guztiak urriaren 6an bilduko dira aurten, egun guztiko programa jori batez. Azaleko arrakastarik baino gehiago ondorio onik izan dezala.

● Egun berean, urriaren 6an alegia, korrikari saioa eratzeakoa da Tolosako Zezen Plazan, eguerdiko hamar eta erdietan. Jose Migel Maiz eta "Iruntziherri" korrikariak 10.000 m. hainako lasterketa egingo dute.

● Ez bata eta ez bestea sasoirik onenean ez badaude ere, 200.000.— ptako postura jarria dute alde bakoitzetik. Aspaldi ez bezalako apostua, beraz, igande goizean Tolosako Zezen Plazan.

● Orain dela hamabost egun besterik esan arren, Martuteneko kanta jaialdia ez da urriaren 12an eratuko, bezperan, hilaren 11an baizik. Egubete aurreratu beharrean aurkitu dira, nonbait antolatzaileak.

● Gogora dezagun, bestalde, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Lupe eta Yon Bergaretxe kantariak izango direla parte hartuko dutenak, gaueko 10.30etan.

● Urriaren 12an "Udalaitz Eguna" eratzeakoa da Arrasaten, Udalaitz tonforrean bertan eratu ere.

● Udalaitz-en edo... hobeto esan, Udalaitz-en, bertakoez diotenez eta —Jose Luis Lizundiarri irakurria diogunez— Arrasateko "Carta Puebla" delakoan, Garibay-en denboretatik agertzen den bezalaxe.

● Edozein modutan, "Udalaitz-Egun" hau orain dela lau sortu zen, eta geroztik Euskal Herriko milaka mendigoi-sale bildu izan da urtero egun berberentzat.

Udala mendi, Udala mendi
Euskal aitzik zutunena,
Araba alboan, erdi Bizkai ta
erdi Gipuzkoan alzena...

● Urriaren 19an, berriz, beste kanta jaialdi bat eratzeakoa da Mallabian.

Oraindik ere gogoan ditugu Mallabian Andramaritan eratu ziren herri jaia. Zenbait debekuri "esker" harako programa ez zen erabat burutu ahal izan, eta zorraz, bestalde, programaz kanpoak.

Hain zuzen, zulo hura nolabait bete asmoz moldatu dute Mallabian urriaren 19ko kanta jaialdi hori. Bertan hartuko dute parte Jon Enbetea, Bakartxo eta Iñaki Mari-txelar, Fantxo eta Peio, eta Lupe kantariak.

Jaialdi ondano erromeria, eguna argitu arte, "Egan" taldearekin.

● Egun berean, hilaren 19an beraz, beste jaialdi bat eratuko da Azkoitian. Hantxe azalduko dira Arza anaiak, Mikel Laboa, Lupe eta Jon Bergaretxe.



Trikilitari Eguna Arraten

ez ordea, hirugarrena aurten, udaberrian behinik behin, aurreko bi urtetan bezalaxe.

Izan ere, maila horretako programa bat urtero eratzeaz ghegigitxo ez ote zen susmoa zuten antolatzaileek, eta aurtengo udaberrian etsi egin zuten, datorren urterako utzi asmoz. Horra non baina, jende gazteagorik atzetik etorri den, bultzaka, zerbit egin beharrez, gauden egoera honetan oporretarik hartzerik ez dagoela eta. Talde dexentea bildu omen da, eta, esan bezala, III Euskal Kultur Hamabostaldia urriaren 13tik 27ra eratuko da. Zorionak!

Datorren astean, ZERUKO ARGIA honetan, programa osoa azalduko den arren, hona lehen eguneko xehetasunak, ingandekoak alegia, irakurleak denboraz jakin ahal ditzan.

Hilaren 13an, beraz, goizeko 11.30etan, Euskal Emologi tresnen esketikan adierazpenaren Erakusketak. Honako erakusketak hau Zabala-Aranburu Jauregian agertaraziko da Agintariak eta etnografiak gaiak utzi dituzten laguntzaileak erakusketak irekitzen azalduko dira.

Ordu berean eta jauregian bertan, Alejandro Tapia euskal margazkilaria erakusketak.

Irakurlea mintzo

Mintza edo hitzegiteko era eta modu asko dago, noski. Isiltzea ere hitzegitea izan daiteke askotan, eta kifunai egitea, berriz, hitz asko baino esankorrago.

Hain zuzen, irakurlearen batek —nor denik ez jakin!— "diario de Navarra" egunkaria agintaria emandako artikulu bat bidali digu. Ez dio besterik, harako artikulua kopiatu atera, bidali eta kitto. Hitzak sobera!

Lehendakia ere irakurria genuen Goitiren alpainen hori. Goiti, nafar berriemake trebe bezain bizi eta zorrotza, sarri arduratu ohi da euskal arazoez. Gustora irakurtzen diogu egunerio, irakurlearen interesa sortarazten ondoko dakiena bait da. Lehenagoko batetan honela zioen, Nafarroako euskal irakaskintzari buruz:

"Aquí tenemos una Cédula de Lengua y Cultura vasca. Y tenemos comisión oficial de fomento del euskera, sobre la que debemos tener serias dudas. Y un movimiento de ikasitolas que lejos de ser floreciente parece regresivo. No quisieramos pecar de insolente suspicada, pero tampoco pasar por ignorantes y pasivos, hay hechos que no se explican fácilmente. Por ejemplo: una maestra euskaldun comienza a trabajar con los niños de parvulario; llega una inspección foral, advierte que la maestra no tiene título de parvulista y mandan otra maestra; pero resulta que la nueva, además de no ser euskaldun, tampoco tiene título de parvulista..."

Yo no tengo mucha fe en convenciones internacionales ni en papeles de ese tipo. Pero tengo la convicción de que todos somos cada día más susceptibles ante hechos y sospechas que a veces vienen servidas en bandeja. Los prejuicios, temores y dogmatismos respecto a las lenguas españolas no castellanas son de todos los colores y navegan por aguas a veces contradictorias."

Irakurle ezezagun horrek arestian bidali digun artikulu horretan, aldiz, Iruñean eratu berri den euskal irakaski ikastaroa mintzo zaigu Goiti. Hona azken hitzak:

"Lo curioso es que mientras a los profesores en euskera se les exigen títulos y diplomas (Nafar Diputazioak eskatu eta eman ohi ditu), a los encargados oficiales del fomento del vascoense no se les respeta más mérito que un nombramiento a dedo. Y un dedo que no atiende a méritos objetivos y públicos. Para empezar, sería bueno en lo relacionado con la cultura y lengua vasca huir del clericalismo. En estos temas, una sotana o un alzacuello no son por sí garantía de nada."

Lehen ere, bi edo hiru alditan idatzi izan dugu Nafarroan gertatzen ari diren gauza arraroak. Hainbat gertaera ulergaitz salatu izan dugu. "diario de Navarra"n agertutakoak agertarazi izan ditugu, eta, era berean, gu-reak egunkari horretan hitzez-hitz erreplikatu izan dira.

Tartean, Nafar Diputazioa isilik. Noiz arte? Hasieran esan dugunez, isiltzea ere hitzegitea haina izan daiteke askotan...

soluzio bila

Ikastolak problemarik ugari du, noski, hemen banan-bana aipatu beharrik gabe ere.

Hainbat ikastolatan sarri gertatu ohi da, haurrak biruzpalau urtetan sartu eta E. G. B. delakoa hasi aurretik atera. Alferrik izaten da sarrekoan gurasok bildu eta kontsultatzen ematea... haurra behin ikastolan sartuz gero ez dela gero atera behar... ez pedagogiaz eta ez psikologiaz ez dela komeni... ikastolak ere zenbait urtetako programazioa behar duela egin... ikastolan haurra sartzen duten gurasok ikastolaren zentzu eta helburuaz jabetu behar dutela... etab. etab.

Alferrik, bai. Askotok "parvulario"tzat jotzen du ikastola, eta sentikera merke batez zein oportunismo maiturrez, haurra ikastolara bidali ohi dute, beste aukerarik ezean.

Zenbaitek, hiruzpalau urteren barruan ateratzeko asmotan sartu izaten du haurra ikastolan. Tontorenak egin

eta, zorrongo-zorrongo berea aurrera. Bost axola ikastolari!

Guzti honetaz ohartzeko ez da, noski, azkarregia izan behar. Izan ere, hauzka ez da, ez, honetaz ohartzea, arazo honi zer nolako soluzioa ematea baizik. Hainbat ikastolako zuzendariak beldur dira soluziorik hautatzean, inor min ez dadin edo. Jakina, betikoa, guri hankape egiten digute, eta gu, ordea, beti kezkatuan noiz baten bat gauserratu.

—Hauk honela, Bergaran nolabaiteko soluzio bat aurkitu bide dute. Ez da, behar bada, erabatekoa, baina, bai, agian, lehen pausoa.

Bergarako Aranzadi Ikastolan erabaki berri dutenez, aurrerantzean ez omen da ikastolatik ateratzen den ikasleren anai-arrebak hartuko. Beraz, txarrenean ere, familia bakoitzean seme nagusienarekin egingo dute porrot, ez ordea, ondorengoekin ere.

Erabaki hau udan hartu da, eta hasi berria den ikastaroari dagokio lehenbizikoz. Horra ba non, aurreko urteetan ikastolatik irbitzen diren ikasleek anai-arreba txikiak ez diren oraingoan onartuko izan. Izan ere, zertarako nahi ote zituzten sartu? Bergaran bost urte arteko beste eskolarik ez dagoelako ez ote? Auantia ditzatela etxean.

Halaok zerbait egin nahi bide dute Gipuzkoako beste zenbait ikastolatan ere. Zerbait egin beharko, etxe baitan ere adarrik joko ez badigute.

denetarik

Baionako Pannecau karrikan, erabat euskal kulturari atxikia ihardungo duen liburutegi berri bat ireki berri da. Zabal deritza liburutegi berri honi, Jokin Apalategi eta Fermín Jaka lagunen zuzendaritzapean martxan jarria.

HERRIA asteakariak honako hitz hauk jarri berri ditu Jakin Apalategiaren ahotan: "Holako saltegi baten beharra badugula Baionan euskal kulturari bere lekua emateko, han eta hemen Euskal Herriaz politika hutsa baizik ez delarik askotan aipatzen".

Bestalde, "Zabal" liburutegi berri honetan, liburuak gainera, diskoak ere agertaraziko dira, bai eta hainbat euskal pintatzaile eta irudigileren arte-lanak ere.

● Luzaldeko Udaltekeak ohi ez den erabaki bat hartu du, herriko sekretario berriak nahi eta nahi ez euskaraz jakin dezala eskatu bait du.

● Eibarko Mogel Ikastolak 27.000.— m2 erosi berri ditu legearen arabera ikastetxea berri bat eraiki ahal izateko.


Guztira sei miloi pezeza pasa, eibartarren artean laster asko bildu beharko dena. Ez da, horregatik, sasoirik onena!

● Eta Eibar aipatu dugunez, urriaren lehen euskara ikasaldiak hasiak dira Eibarren bertan, S. C. R. Arrate delu eizkaren.

Bataz beste berehunen bat ikasle hasia da ikaskizunetan, hamalau irakasleren zuzendaritzapean.

Ikasaldi hiru mailatan bereziki dira, ikasleek jakintza araberak, hots, ezertxo ere ez dakitenak, zerbait dakitenak, eta euskaraz mintzo direnak.

AMATINO



Maiz

trikilitari eguna

Irailaren 22an III Trikitilari Eguna eratu zen Arraten. Gertatuaz eta bestez, Mutiazabalek eman zigun berri zehatzik joan zen astean, Ez gura hasiko bada, orain lehen esandakorik berresaten.

Edozein modutan, datorren urtean omendua izango den bikotea, trikitilariak behar zuten Arraten erabaki, bai eta IV Trikitilari zein tokitan eratuko den ere. Ez zen, ordea, erabakirik hartu.

Trikitilari guztiak bildu ezinean, urtero-urtero batzorde bat aukeratu izaten da, omenaldi eguna nori eskaini behar zaien erabaki dezan. Aurtengo batzordea Sakabi, Egurrola, Martin eta Zialtzeta solnu-joleak osatzen dute, eta heroiak dagokie, beraz, datorren urteko hautakizuna.

Itxura denez, batzorde horrek nolabaiteko aukera bat eskaini zuen Arrateko biltzarrean, baina ez zen azken batez akordurik izan. Arlo batez zein bestez, hainbatetan gertatu ohi zaizkigu horrelakoak. Zertarako batzordeak izendatu, gero haren esanik onartuko ez badugu?


Dena den, Sakabi, Egurrola, Martin eta Zialtzeta berri ere hilaren 7an bilduko dira, bikoteren bat edo beste aukeratu nahiaz. Guztion gustorik egin ahal izango ote dute?

euskal kultur hamabostaldia

Urriaren 13tik 27ra arteko bi asteren barruan Tolosako III Euskal Kultur Hamabostaldia eratzeakoa da. Horra ustekabeko notizia, bat-batekoa.

Tolosako Euskal Kultur Hamabostaldia 1972 urtean sortu zen, "Lizardi Kultur Elkarteak" eratutik, Aseztzio Hondartza, Joseba Intxausti eta beste hainbat adiskide gartsuren gidaritzapean. Lehen hamabostaldi haren argi eta distira erabatekoa izan zen, eta bere eragina Euskal Herriko beste hainbat kultur programaziotan barreiatu zen.

Iaz berriz, bigarren hamabostaldia eratu zen, baina



Aseztzio Hondartza

Bretaina Andian auteskundeak

Juan Elustondo

Datorren astean, Urriaren 10ean, Bretaina Andian auteskundeak dituzte. Aste egun buru zurian izaten dira Bretaina Andian auteskundeak. Jendeak normalki lan egiten du. Laneko orduz kanpo ematen dute beren autarkia. Frantzia eta beste amaia lekutan, dabilgun bezala berriz, igandez izan ohi dira auteskundeak. Hemen ere Bretaina Andiak lehengo ohitura zaharrari eltzen dio.

Bretaina Andia krisia izugarri baten menpean arkitzen da. Ekonomia krisia mundu guzian andia baldin bada Bretaina Andian ere eta andiagoa berriz. Wilson ezin zitekeen horrela jarrai. Minorian arkitzen delarik ezin zitzakeen zenbait neurri gogor ar. Lehenxegoa ala beranduxegoa auteskundetara jo beharra zeukan.

Auteskunde honetan, eragingo dutenak batipat iru alderdi dira: laboristak, kontserbadoreak eta liberalak. Iru alderdi horien zenbait zehaztasun ematen ahalegindu naiz, pika bat bederen auteskundeak konpreni ahal izateko. Baina honek beste alderirik ez denik ez du esan nahi. Bretaina Andian alderdi komunista bat bada nahiz eta oso txikia izan. Abertzale mugimenduak ere badira Gallesen, Eskozian t.a. Ezparrak gabe, azkeneko auteskundetan eragin zuten bezala oraingoan ere eragingo dute. Nik hauen berri hemen ez dut eman ahal izan, batetik behar hainbat informazio ez nuelako eta talde oso sakabatuak ikusten direlako bestetik. Urrengo batez saiaturko naiz hauen berri ere ematen. Beharrezkoa deritzat.

KONTSERBADOREAK

Aldi batetako tory taldearen jarraitzaile da kontserbadoreen alderdi politikoa. Jarraitzaileak izan arren, jendekerez nahiz pentsamenduez kontserbadoreak asko aldatu dira. Aldaketa horretan asko eragin zuen 1832 urtean egin zen auteskundeen erreforma izan zen. Urte horretan, hain zuzen, deituraz aldatu zuten, tory izena alde batera utzirik kontserbadoreen izena artzen zutelarik.

Alderdi honek, Bretaina Andiko beste alderdiek ez duten bezala, ez du sistematikoki osatutako pentsa modurik. Halaz ere baditu oinarriko iru pindu: lehenik pertsonarenaren sinismena. Sinismen horrek, ekonomia alorrean, liberalismo posturaz joka erazten die, Planifikazioaren aurka azaltzen dira Kontserbadoreak. Planifikatze baten beharrik gabe, kapitalismoak irau dezakeela pentsatzen dute.

Bigarren pindua, Britainako antzitasunaren duten sinismena da. Britainako imperialismoa zabaltzen eta indartzen lanik gehien egin zutenak kontserbadoreak izan ziren. Gaur egun, pindu honetan zerbait aldatu, dira eta, hain zuzen, Bretaina Andia Europa Elkarteko bazkide egin zutenak kontserbadoreak izan ziren.

Iragarren pindua, gizartea zain-tezko moral arau batzuen ingurura ikusten dute. Paternalismoa kutsatutako pentsamoldea da kontserbadoreen pentsamoldea. Profumori gertatutakoa dugu moralismoa honen albididerik egokienetakoa.

Funtsezko iru pindu hauetatik kanpo, egunean egunekoari erantzuten ahalegintzen da kontserbadore gizon politikoa, enpirismo batez jokatzu, alegia.

Enpirismo horren albididetako bat Churchill kontserbadoreak 1951 urtean, berriro ere agintaritzara etorri zenean, artu zuen postura da. Laboristek, 1945 urteaz gero, sozialismoa eta nazionalizazioa mailan sortera ziztuzten aldaketa denak errespetatu zituzten Churchill. Aldaketa haiek, nahiz eta bere pentsamoldean ez kabituz, Churchill enpirismo baten eraginez, gauzak zaudenean arturik lanari ekin zion.

Churchillez gero kontserbadoreak ez dute kategoria andiko gizonik izan. Edward Heath alderdiko buruzagitzara irixi zenean kontserbadoreen artean berrikuntza bat eman zela esan daiteke. Heath politikarekin batera klase mediko gizonak, lehengoak baino realistaagoak, ekonomialari arazoak kezkatuak, lehengo antzitasuna bukatu zela eta Europaren beharra ikusten zuten gizon berriak arkitzen zuten alderdiaren erakundeen buru. Baina, halaz ere, nahiko lan badute, Heath uste zuen baino politikoa argalagoa azaldu da. Bere egogogorkeria bide dela galdu zituzten kontserbadoreek azkeneko auteskundeak. Ezparrak gabe, oraingo hauetan ere garaila ateratzen ez badira, Heathek bere buruzagi-

tza galduko du eta beste berri bat bilatu beharko dute.

Baina, gaur egun, kontserbadoreak kinka latz batetan arkitzen dira. Bere indarra ahultzen ari da liberalak direla eta. Hauxe indartsuago, sasoi andiago azaltzen dira. Gorakada andi bat egin zuten azkeneko auteskundetan. Oraingo honetan lehengo hainbatekoa egi-

ten badute ez da sozialisten kaltetarako izango kontserbadoreen kaltetarako baizik.

Arrisku hori ikusirik eta auteskundeak irabaztea oso zaila izango zaiola pentsaturik Heath politikak elkarre edo koalizioa osatzeko prest dagoela adierazi du. Zer gertatuko da?

LIBERALAK

Whig alderdiaren jarraitzaileak dira gaurko liberalak. Whig alderdia izan zen monarkiare aurka borroka gogor egin zuena eta Parlamentuaren eskubideak eta indarra sendotzen gehien ahalegindu zena. Kontserbadoreak monarkiare eskubideen alde gehiago azaldu izan dira historian zehar. Liberalak, esan dudari bezala, alderantziz jokatu ziren. Whig alderdia, erlijio askatasunaren aldekoa izan zen nahiz eta berriro kontserbadoreen aurka borroka gogor egin izan behar.

Garai batetako Whig alderdia erdi mailako baserritar aberatsen eta irietako burgesiaren eraginez bizi zen bezala, gaurko liberal alderdia batipat komertzianten eta intelektual burgesiaren eraginez dabil.

Liberalak ekonomia eta sozial arazoak beti kezkatu izan dira. Gladstone politikoa andiaren bidez ere antiparlistak postura artu zuen. Irlandako arazoa izan zen kaltegarri liberalentzat. Liberalak postura zabal eta jator xamarra artu zuten Irlandari buruz. Postura horrek ordea bere barnean zatiketa bat eta beste sortu zuen, bazkide atzerako eta eskulkoenak kontserbadoreen alderdian pasatzu.

Emeretizgarren mende osan eta ogeigarren mendearen aseran ain indartsua zen alderdia, 1920 urtetatik aurrera gain beharera ikusten dugu gaur arte. Alderdiaren ezkerreko ere aldegin egiten du. Laboristen alderdia osatzen ezkerreko liberalak lan asko egin zuten. Baina, horra, eskutik eta ezkerretik jendez edo bazkidez urrituz, alderdia zeharo ahulturik arkitu zen.

1945 urteaz geroztik liberalak ez dute egintzaritza eskurik sartzerik izan. Koalizioko gobernu batetan parte hartu, munduko bigarren guduaren parte hartu zuten azkeneko liberalak gobernean. Gaur berriro ere horrelako zerbituen bidez parte hartuko ote duen itxaropenaz dabilta liberalak. Elkarre hori egitekoan kontserbadoreekin egin beharko dute. Laboristek ez dute elkarre konturik entzuterik ere nahi, bestela ikusi gaur zer gertatzen den. Laboristak, maioriarik ez izan arren, agintzen ari dira eta hain zuzen liberalak koalizio bat osatzetik ez dutelako nahi.

Lehen esan dudari bezala, azkeneko auteskundetan liberalak gorakada andia egin zuten. Aspaldian jaso zuten autarkirik gehiena jaso zuten. Gorakada honen eragile berezia, alderdiaren buruzagi den Jeremy Thorpe gizona izan da. Berrogeita bost urteko gizon gazte honek halakoxe indarberritze bat ekarri dio alderdiari. Gizon berri bat bezala azaltzen da. Gogorra eta askotan oso radikal azaltzen da. Bretaina Andiko sistema politikoa zaharkiturik ikusten duelarik jende gazte eta konten gaitzari mintatu ohi zaio. Gizon argia, izlari onenaketa bat eta kritikalarri gogorra izateak autarki asko ekar erazi zion. Baina hori ez da nahikoa.

Bera ere horretaz jabetu da. Orain eginahalean ari da gobernuko gizonserio bat izan daitekeela adierazi nahirik. Lortuko ahal du? Ez da erraza izango. Berriro ere liberalak gora egiten badute beren meritoagatik baino kontserbadoreen eta laboristen utsegitagatik gehiago izango da.

Baina gauza bat gogoan izan behar da. Liberalak nahiz eta autarkiz gorakada bat izan, horrek ez du esan nahi diputaduz gehiago izango dutenik. Izan ere, gaur egun Bretaina Andian dagoen auteskunde sistema berentzat kaltegarriakoa bai da. Liberalak uste honetan 14 diputadu besterik ez dute. Baina azkeneko auteskundetan 19,3 % autarki izan zuten. Autarki horien arabera diputaduz izan balitu 120ren bat diputadu zezoklokeen liberal alderdiari. Zer gertatzen da?

Eskualde bakoitzean garaila autarkirik gehiena izaten duena izan ohi da nahiz eta maioriarik ez atera. Horregatik, leku askotan nahiz eta autarki asko izan, bigarren irixten direlarik diputadurik izateko modurik ez dute. Proporziozko sistema bat ez dago eta horregatik oso liberal diputadu guti izan ohi dituzte. Gaur dagoen sistema laborista eta kontserbadoreentzat da oso egokia.

Halaz ere, oraingo honetan liberalak diputadu gehiago izateko bidean ote dauden esaten da. Ikusiko dugu.

LABORISTAK

Trabalista edo sozialista edo laborista alderdia, ofizialki 1903 urtean sortu zen. Sorre horretan denok dakigun bezala langile erakunde edo sindikatoek eragin andia izan zuten. Baina horiek bakarrik ez ziren izan. Intelektual beste zenbait elkarre, liberal alderditik etorritakoak t.a. izan ziren ere sorrearen parte artu zutenak. Baina dena den, ezparrak gabe sindikatoek esker irtzen zuten behetik gora eta dihardu goian.

Urte guti iraun zuen lanean. 1923 urtean Parlamentuan 57 diputadu ditu eta 1923 urtean berriz 180 diputadu. Urte bete barruan, beraz, aurrerakada ederra egiten du. Urte hauetatik 1935 urte bitartean laborista alderdia koalizioko gobernuetan parte artzen ikusiko dugu. 1935 urteaz gero kontserbaoreekin batera laboristak azaltzen dira alderdirik indartsuena bezala. Laboristek gora egiten duten bezala liberalak behera egiten dute.

Bretaina Andiko laboristak sozialistak ahal dira? Erantzuna ez da erraza. Alderdi bezala, halaz ere, nik ez dela esango nuke nahiz eta bere barnean jende asko sozialista izan. Gaur egun eta azken urte haultan egin duen politika ikusiz sozialista politika bat egin duen esaterik ez dago. Aldaketa batzuk sortu ditu baina sistema kapitalista aldatzeko aldaketarik egin duenik ezin daiteke esan. Nazionalizazioak egin dituela? Baina gaur egun kapitalistek berek eskatzen dute zenbait nazionalizazio egiteko, izan ere zenbait industria ez bai da diru irabazdie. Horrelako industriak kapitalista askok eta askok estatuaren bizkar ezarri nahi dituzte.

Gainera sozialismoa eta estatismoa ez dira berdinak. Jakin behar dugu kapitalismoa motak badirela, hain zuzen horietako bat estaduko kapitalismoa deritzana izanik.

Bestalde, alderdi honek ez du pentsamendu mailan, sistematikoki osatutako ideologia sozialista bat. Frantziako alderdi sozialistak teoria ez du horrelako gauzarik ezta urrertzeorik ere. Morgan Philips laboristen idazkari izanakin behin esan zuen: laboristek metodismoz gehiago kutsaturik zeudela marxismoz baino.

Azken urte hauetan auteskundeak irabazi behar eta laboristak ez dira langilearen alde bezala azaltzen, nazio zerbitzeko eta gobernatzeko gauza den alderdi bezala baizik. Bretaina Andiko gobernu eginkor eta serio bat behar du, esango du Wilson buruzagiak eta hori gu gara. Baina sindikatoak bide direla, gaur, alderdi hau piska bat bederen ezkeretzen ari da. Azken aldi honetan pentsamendu mailan ere lan asko egin dute. Alderdiaren zati bat geroz eta sozialistak azaltzen ari da. Hori horrela ikusirik badira, egun hauetan hain zuzen, alderdia utzi dutenak. Baina zati hau oraindik oso txikia da eta huelga batzuetatik at bere indar praktikoa ez da oso andia.

Ez da pentsatu behar alderdi honen ezkerre sindikatoek osatzen dutenik. Ezker planteamendu hori egiten duen sindikato guti dira. Gehienetan, eguneko ogia gogoan izanik, eskaera eta borrokan frenatzen dutenak sindikatoak izan ohi dira. Sindikatoen indarra ikaragarria da. Alderdiaren gastuak 80 % sindikatoek ordaintzen dute. Zaila izango da munduan beste horrelako alderdirik ikustea. Munduan ez da izango sindikatoek hain erotsi loturik dagoen alderdi sozialistarik. Horixe da hain zuzen Bretaina Andiko sozialisten berezitasun nabarmena. Hori gogoan izan ez bada ez da ulertuko zer eta nolako den alderdi trabalista.



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 10 - URRUT. 11430
DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrutizkifia: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

MAIXUGAIENTZAT OHARRA

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzak Maixutza ikasten ari diren neska-mutilentzat 1974-1975 ikasturorako 7.500 pezetako 15 beka eskaintzen ditu. Beka horiek lortzeko baldintzak:

1. Maixu karrera hasita edukitzea.
2. Herri bakoitzeko ikastolaren bidez egin behar da bekaren eskaria. Herrian ez badago bailarakoaren bidez.
3. Urtero eskatu behar da beka eta hiru zatitan jasoko da urtearen buruan.
4. Maixutza ikasketak bukatzen dituenen hiru urtetan ikastolaren batean lan egiteko hitza emango du bekadunak.
5. Elkarteak antolatzen dituen euskal ikastaroetara joan beharko du eta Euskaltzaindiak ematen duen euskal irakasle titularen jabe egin.
6. Euskarra hitzegiteko eta ulertzeko hainbat jakin behar du beka eskatzen duenak.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzaren
TALDE BATERAGILEAK

zuen
etxeaz ere,
oroitu
gaituzu,
etxekoandre



MILLOI pezeta
saritan

bakoitza
200.000 pezetako
5 sari

Donosti-Aurreriki-Kutxa

Librekin sartzen dituzun milia pezeta bakoitzeko txartel-zenbakia izango duzu
ta leordik daukazun 5.000 pezeta bakoitzeko, beste txartel-zenbakia.
Iniziatzen dituzun Noiz-naiko ta Epe jakifeko Librekin bertan ere,
1.000 pezeta bakoitzeko, txartel-zenbakia izango duzu.

PUBLIVAC

Stanley G. Payne edo Euskal Nazionalismoa

Wisconsin (USA) unibertsitateko irakasle den Stanley G. Payne historikileak, **EL NACIONALISMO VASCO** (De sus orígenes a la E. T. A.) deitzen den liburu bat argitaratu eman berri du. Eta liburu hori Espainian argitaratua izan da, hain zuzen (1).

Uztailen, "Actualidad Económica" izeneko aldizkariaren 853garren alean egin zioten elkarriketean, Paynek esaten zuen ez omen zuela uste liburu hori Espainian argitaratzetik izango zuenik; baiña ustekabea, administrazioak, eta, batez ere, Ricardo de la Cierva jaunak, liburuaren ontzat eman omen zion. Beraz, hainbestetan gorri egoten den semafora Payne jaunari berdez jarri zitzaion.

Stanley Payne, 1961garren urtean argitaratua izan zen "Falange: A history of spanish fascism" liburu nahiko famatuaren egile bera da. Geroztik, Francoren Espainiari buruz liburu sail bat idatzirik eta argitaraturik du; politikaz, militarretaz, Portugaletik harremanetaz, eta, bar, bere ideiak agertuak ditu.

Oraingo hontan euskal nazionalismoaz idatzi du, eta, nere ustez, bere liburu aski interesgarri bada ere, nahiko diskutigarri ere bada.

Liburuak, zer esanik ez, halako aurela sensazionalista bat badu inguruan; ez baita gauza normala horrela gai bat Espainian, publikoki eta inpartzialtasun itxuraz, azaldu behar. Inpartzialtasun itxuraz diot, zeren, oker ez banago, Paynek oso ekilibratu eta inpartzial izan nahi du, baina nik ez dakit horrelako gai batetan egileak gurtz inpartzial izan ote litekeen.

Historigile baten baitan birtute izan litekeen inpartzialtasun objektibo hori, segun eta gauzak nola enfokatzaren diren partzialtasun bilaka baliteke.

Alde batetik, Payne jauna eskema batzuk buruan zituelarik liburuaren idatzen hasi zela garbi ikusten da. Adibidez, euskal abertzaletasuna, berak behin eta berriz dioenez, burgesia tipiko jendearen eta nekazarri batzuen ideologia izan omen zen. Bai eta behe-maila herrikoieko eleizgizon eta kleroaren ere. Hori ukatu gabe, eta burgesia haundiarren jokabidea euskal herrian espainolista izan zela (ia beti monarkiko tankeran) ontzat hartuz, Payneri lehen alegazioa egin behar genioke: euskal langileriaren abertzale irizpideak, eta euskal langileriaren sindikal-abertzale mugimendua nola gelditzen dira?

Payne jaunak S. T. V. elkartearen garrantzia behin eta berriz ikertatu, illundu, eta gutxietsi egiten du. Euskal langile elkartea, eta partidaren buruzagi eta zuzendarien arteko harreman eta gorabeherak ez ditu ia badere aztertzen, eta langile elkartearen garrantzi eta eraginik ere ez. Halako batetan, eta ezerezetik sorturiko fantasma bat baitizan, S. T. V. elkartea 30.000 bat mila afiliatu izatera iritxi zela esaten digu. Eta, hortik aurrera, azterketarik batera ez.

Liburu hontan euskal abertzalgoaren sozial-osagarriak aztertzen direlarik, lehen aipaturiko eskema ximple xamar batetik abiatuz egiten direla iruditzen zait.

Euskal herriko goi-burgesia, kapitaldun burgesia industrial eta lur-jabe indartsuen saila espainolista baldin bazen, eta, Paynek dioenez, langileria berriz espainiar ezker-talde eta mugimenduetara lerratzen bazen, nik hain galdetzen dut: euskal abertzaleatasunari eta P. N. V. alderdiari zer kientela arrazo geratzen zitzaion? Eta hor dator, Payneren aldetik, eskema topikoaren aplikazioa. Berak dioenez, burgesia tipiko zenbait jende, zenbait dendar, zenbait baserriar sentimental eta, azkenik, apaiza eta langile kualifikatu batzuk omen ziren euskal abertzalgoaren osagarriak.

Hain konponente lanbrotsu eta sakabanatuekin, ez da, egia esan, euskal abertzaleatasunak eduki zuen garrantzi eta indar politikoa ongi konprenitzen. Autonomiarako estatutoaren lehen hautespenetan P. N. V.-k jaso zituen portzentaje haundiak ere (Paynek berak adierazten dituenak) ez dira konprenitzen.

Paynek, halako harridura berezi bat agertuz, eta bere azterketaren aurreiritziak juzgamenetaz hartuz, zera esaten digu: P. N. V. eta abertzalgoaren ahalakia politikoa, sozial-osagarrien indefinizio hontan omen zetzala. Gerla-

-garaiaz ari delarik, P. N. V.-ren kontradizioak adierazi nahi ditu. Badirudi P. N. V., gerla denboran, beti zalan-tzan eta zeharo ezin definituz ibili zela. Baina hor ere ondorenek, eta Bizkaiko erresistentziarik bereziki, Payneren iritzirik frango gezurreztatzen dituzte.

Zalantzarik egongo zela, nola uka? Ez zen txantxetako egoera, eta alderdiko buruzagiek, ergelak ez zirelarik, beren herria zulo hartatik nola atera behin baino gehiagotan pentsatu beharko zuten. Hala ere, demokratiko jokoa errespetatua izan zen, eta errepublikarekiko leialtasunak tinko iraun zuen, nahiz eta errepublikako gobernamenduak askotan euskaldunei huts egin, abiazioa untearekin gertatu zen bezela.

Gauza horiek, egia esan, Paynek argi eta garbi adierazten ditu. Bizkaiko euskal gobernamendua, moraltasuna eta gizalge aldetik, ongi paratua ateratzen da Payneren liburuan. Baina hori ez da aski. Gauza horiek lehen ere bagenikizkien... Badirudi, ordea, gobernamendu gizalge-tsu eta humanista hura, politik, jokabide eta eraginak lanbro artean ibili zela. Eta hori nik ez dut sinesten.

Burruka eta kontradizio haien erdian, nere ustez polarizazio sakon eta indartsu bat egon zen Euskal Herrian. Alderdiaren jokabideak, eta euskal gobernamenduarien, herri baten eraginari erantutzu zioten. Eta eragin hori bertsu eta egialgo izan zenez gero, bere arrazoi sozial-goiak sakonago aztertu behar lirateke. Euskal abertzalgoaren baitan ez zen dena sentimentalismo, folklore eta indefinizio izan, Payneren liburutik askotan uler gae-zakeen bezela; ez eta gutxiagorik ere.

Gerlako gertakizunetaz ari delarik, eta gerla-osteko errepresioaz, Payneren neutraltasuna sospetxagarri iraditen zait. Badirudi gerlaren bukaera, irabazleen jokabide aldetik, bigun eta nahiko gizalgetsu izan zela... Payne dioenez, beste gerla zibilletan eta egoera berdintsuetan astakeria haundiagorik gertatu izan omen da munduan. Baliteke, ez dugu ukatuko; baiña, euskaldunen jokabidea Paynek dioen bezala zuzena izan bazen (hortan ez punitadatzu batzuk botatzen ditu), ez dugu oso garbi ikusten horren ordainez euskaldunok errezibitu omen zuten "moderatu" eta "bigun" haren zera.

Badirudi Paynek ez duela euskaldunen joera bereko eta askearen nundik-norakoa arrazoitsu aurkitzen. Ez da sekulan garbiki esaten, baiña hitz-erdiak adierazi, bai, askotan egiten du. Espainiako sozial burruken polarizazioaren ikuspegitik gauzak begiratzen dituelarik, euskaldunen "hirugarren bidea" nahiko harrigarri eta ulergaitz gertatzen zaiola dirudi. Euskaldungoaren barruko sozial talde desberdinen dialektika, eta dinamika hortatik sorturiko sintesia, eta bere adierazpena (gobernamendua, gerla garaieko estrategia askea, espainiar partiduen etsaigoa irki edo estalia, etabari) pixka bat trabatu egiten zaitzila. Fenomeno enbazoagarri baten aurrean bezela topatzen da, eta, nere ustez, Paynek euskaldunen jokabidea ez du begi onez ikusten.

Hala ere, Payneren liburuan gauza interesgarri asko dago. Euskal Herriaren historiari gogozfolarik (beste egileatik hartzen badu ere), euskal mugimenduarien zenbait zehaztasun buruz, gauza garrantzitsu asko esaten da, eta bere azterketa era "liberal" batetan egin dago.

Hori ez da gutxi, baina ez da eta ere ez da aski. Liburu oso interesgarria dela iruditzen zait Payneren hau, baina, zoritxarrez, ez da berak nahi izan duen bezain "oso" eta "sakona"; eta askotan, ez eta "objektiboa" ere. Gertakizunen logika bat zuzen xamar erabiltzen eta deskribatzen jakin du, baiña euskal abertzalgoaren baitako indar eta osagarrien kontradizio eta harremanen dialektika konki iturartzin jakin duenik ez dut uste.

Amerikar unibertsitarien "eklektizismoa" oso kanpe-itxura elegantedun gauza da, zalantzarik gabe, baiña beldur nabil ez ote diren, Payne liburu hontan bezela, eklektizismo berri horren saretan trabaturik batzutan geratzen.

XABIER LETE

(1) EL NACIONALISMO VASCO (De sus orígenes a la E. T. A.). DOPESA — Barcelona, 1974.



YOGUR

GURELESA
GOGOZKOENA



JOAN MIRO, PICASSOREN ONDORENGOA

Picasso hilez geroztik, egungo pintorerik hoberena Joan Miró du, hala nola Txillida euskalduna garai hontako eskultoretan hoberena den.

Frantzia, «Grand Pallais» delakoan omenaldi handi bat eskaintzen ari zaila orain eta orobat egin da Barcelonako «Sala Gaspar» delakoan, katalan surrealista, haurkoi eta ironikoari, Picassori, Matisseri, Chagalli eta Legeri egin zitzaizken bezala.

Camps Elisées-eko Jauregian eta hiru gela handitan agerian daude, Miróren izarrak, katuak, ilargi adarrak eta arrain pisugabeak. Joan Miró, bere larrogi eta bat urtean ere, lanean ari da etengabe, ekitez eta irudiz, geroz eta mar-dulago eta haurkioago, eskulturan eta marrazkietan batpat. Miróren garrantzitsuen bere xumetasunaren garbia dela esan ohi da, bere haurkotasuna. Azal soil batean egin izan du Mi-6k puntu bat eta marra bat, XX. menderako alfabeto berri baten oinarri bezala edo eta morse systema berri batena bezala.

Aski da, ordea, koadro bakarra ikustea, Barcelona «Sala Gaspar» delako litografiatarik bat ikustea alegia, haren nortasunaz eta originalitateaz ohartzeko. Haren marrazkiak, neure gelaren atean esegia dudana bezala, minutu gutitan eginak dirudite... baina «hirurogei urtetako zailtasunen ondorio» dira. Duela urte asko sortutako eragozpenak; hain zuzen, surrealismoaren «enfant terrible» honek «pintura akabatu» nahi zuela esaten sortuak; halere, ez zuten diru estuasunik inoiz ere ukan.

Pariserat bi bider joan ondoren, Blomet karrikan kokatu zen eta berehala hartu zuen izena. Ez zen izen handia Miró gaztearene, baina lasai samar bizitzeko aina bazuen, Ernest Hemingway koadroak erosten zizkionean, diruz ez boxeo eskolak emanaz baliz ordainduz. Pisu handiko batek «euli-pisu» bati erakusten...


Betidanik bizi izan da Miró haur patxaroso eta ameslari baten antzean. Boxeoazale izan bazen, ziur nago, guztiki bezala gaztaroko bizitasunak eta «dandismoak» eragirik izan zela.

Orain Miró Pariserat itzultzen da. Maeght galerian bere lanak agertzen, hain azaltzen bait dira XX. mendeko maisurik handienak (Tápies, Txillida, Riopelle); bere emazte Pilarrek laguntzen dio, bakarrik dagoenean «desarmatua» dela aitortzen baitu Miró.

Baina hilabete hauetan, Parisen eta Barcelonan (1), ez dago bakarrik Miró. Miloitik gora izango da agerketa horiek ikustera joan den jendetza. Ikusle bakoitzak, adiskide bakoitzak betekio dio Miróri bere bakardadea, bera Mallorcako islan izarrak eta ilargia begiratzu bizi delarik, katuek arrainel oihu egiten dien bitartean eta itsasoak hondartzak harea musukatzen duen bitartean.

E. Kortadi Olano

- (1) Grand Pallais. Camps Elisées. Paris.
Sala Gaspar. Consejo de Ciento 231. Barcelona.



Miró. Ikusle bakoitzak betekio du artistaren bakardadea.

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 48

GAZTEIZ (Vitoria)

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiak:

Etxekoa: 65 19 60

Landolako: 65 19 33

URRETUXA

Urrutizkiak:

Landolako: 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

O T E I T Z A

Eskultore baten etorriari aburuak

Hondarrabiako «Txantxangorri» etxean, abuztuaren 29tik irailaren 30era, Antologiako erakuseta jarria du Oteizak. Arantzazuko siletetik 29 multiple eta beste 39 eskultura, bere ekintza saloaren adigarri.

Euskal Herriko erdal egunkarietan, artikulu politik irakurri badugu ere, lotsagarrikerik ere ageritu da. Nabarmen arkitzen da arteaz artzeko behar bezalako kritikorik eza. Gehiago esango nuke, ikusten diren aburuak ikusirik, egunkarion zuzendariek asmo onik ez dutela agertzen. Izan ere ezta erraz ulertzen gure artista hoberenak hain ahanziak izatea, edo inoiz hauekaren bat aipatzean merezi duten bezalako begiramen ez tratatzea. Eta, hoiak guti bailiren, gure Amañik ere bota zigun «puzkar» bat behar ez zuen tokian.

Lehenak guti bailiren, J. M. Alvarez-enak, abuztuaren 30eko «La Voz de España»koak gehiegizkoak dira.

Arteaz ezin da logika hutsez begiratu. Baina Oteizaren antologiari egin zaitzaten kritika txarren atrean logikaz begiratu nahi bada ere, bada hontarako argudiorik.


Gure iritziz, Oteizaren arteak badu zer ikusirik guri historia aurretik daturikun tradiziozko arteaz. Azilaldian eta Neolitos garaian egin zen arte astraktotik hasita, dolmen, kronlenk, hilarri eta herri arteko tresneriak gogoan baditugu, bada zer ikustekorik. Oteizak guztiak gogoan izan ditu, bere barne-gogozko etorrian egostera, gure begien aurrera ekarri baino lehen. Eta, gero, Oteizak berak bere barruaz izan duen eboluzioa ezagutzeko beharrezkoak ditugu bere ekintzan jarri dituen hito horiek. Esate baterako, hilarriak behar bezala ikusteko, beharrezkoak zaizkigu gure hilarri hiribilaik eta Alta Donostiaren omenez Le-saka gaineko Aginaren jaso zuen monumentoa, geroztik bide hortatik eboluzionatuz egin dituenak eta azkenik, momentu honetan, Lemoniz eta Itziar-i egin dijakin hilarriak. Beraz, ezta burua asko nekatu beharrik Oteizaren agerkizuna ulertzeko. Begiak dituenak, zentzu-nik badu, ikus beza.

Arantzazuko elizaren aurrealdean 12 apostoluren ordez 14 jartzea, egiaurren ordez gezurra jartzea dela? Baina, puntu hontan, zer du ikustekorik plastika arteko teologiaz? Hontaz inorik ere esatekotan teologiek dute hitza, eta ez beren buruak arte kritikatzailatzat dituztenak.

Egia esan, badakigu gaia heria teologiari loturik dagoena. Baina ezta teologia askorik jakin behar San Paulok erromatarrei egin Epistolari Androniko eta Junias izeneko bi ere apostoluzat jotzen dituela. Baina, harrigarria bada ere, Sangotzako Santa Mariaren atauraren (XII. mendearen bukaeran egindako eliza da), goi partean, 14 apostolu daude, eta ez 12. (J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almeche-en Arte Medieval Navararren hirugarren tomoak XII. kapituluaren dienez, ataurrea egin zuten artistak Irunko eskolako nafarrak ziren).

Zenbat apostolu behar diren, kontu honetan, Oteizak behar bada ez du izango San Paulok bezainbat eskubide, biak uste berdina badute ere, baina, arrunpola! Erdi-aroako nafar artistak hainako eskubiderik ez duela uste izateari gehiegi deritzagu.

Eta lehen aldikoa Oteizak holako zerbaite egiten duela. Gaztetxoa nintzela ezagutu nuen Kukuarrin egin zuen Andra Maria, eskuetan txori batekin. Eta, geroztik ezagutu ditut Kortezubiko Santimamiñen eta Bergarako San Mielén, bi ermita polit hauetan, Erdi-aroako Andra Mariak, Ebanjelio Apokrifotako etorriz



Oteiza

horniturik, Amaren altzoan Haurra eta honek bere eskuan txoria duela. Bi Andra Mariok artista herriarrek eginak dira. Honengatik, hau jakiteak uste soil batera garamatza: Oteizak teologiaz asko dakil edo bestela Oteizak herri arteaz beren buruak «kritikotzat» dituztenak baino askoz gehiago dakil. Seguru asko, bietan.

Bukatzeke, hau ere esango dugu: arte kontuan espazioen berri dakienak arkituko du Oteizaren frontoiak zer ikustekorik duen Velázquez-en «Las Meninas»ekin. Honetarako ere, zentzuna behar da, eta zentzuna bera baino gogo-sentipena gehiago. Irudigintzatik aparte, Velázquez-ek baliozkerik zer duen jakiteko, batez ere irudimena. Mundu guztiko kritikariek ikusi zuten Velázquez-en ezar berezirik bazegoen, hirugarren dimensioaren bilaketa zela. Hain zuzen Oteizaren irudimena etorria hortik joan da, gure frontoiarekin Sevillako artista handiaren sinboluz, euskaldunaren omena eraman nahi. Ez ote da eskeragorria?

Beti ere gogoan izan behar duguna, hau da: joan zen mendeko antiparrek ezin dela ikusi egungo artea. Eta, denon gaitetik, artista bati ukatu ezinezkoa, sorkunderako hartu nahi dituen lizentziak dira; adierazpen edo espresiohiderako libertatea, artistak, bere izan behar du.

JUAN SAN MARTIN

Euskaltzaindiaren Batzarre Agiria Axular-en omenez

Irailaren 14ean, Nafarroako Foru Diputazioa eta Urdazubiko Udala lagun zituela, Euskaltzaindiak batzarre agiri eta ospetsu bat egin zuen Urdazubiko monasterio zahararen klaustron Axular euskal idazlearen ohoretan.

Batzarrearen aurretik, konzelebraziozko meza eman zen herriko elizan, eta Castro, hiriko alkate jaunak, agur-hitz batzuk irakurri zituen batzarreari ongi etorria emanez.

Aita Villasantek eman zion hasiera batzarreari, Axular-i euskal literatura landuan zer-nolako tokia zorian adierazi.

Ondoren Juan San Martin jaunak bere sarrera-hitzaldia irakurri zuen, gai hontez: «Euskal literatura landuaren sorrera-giroa, Axular-en garaia arte». Jean Haritschelhar jaunak erantzun zion, eta, beste gauzen artean, San Martin jaunaren lanak eta merezimenduak azpimarkatu zituen.

«Principe de Viana» Erakundeak zuzendari den Vicente Galbete eta Jose Maria Satrustegui euskaltzainak Fontes Linguae Vasconum-en zenbaki bereziaren aurkezpene egin

zuten, dena Axular-i eskeinita bait da.

Eta batzarreari bukaera emateko, Iturralde Diputatu jaunak hitz batzuk esan zituen Nafarroako Diputazioaren izenean.

Ondoren euskaltzain, egintari, eta omenaldia etorritako fende guztia Axular-en jaiotetxera joan ziren (etxe hau, beronen jabe den D. Justo Salaberri jaunak berriztatu bait du), eta bertan jarritako oroitarrak agertu zen. Oroitarriak hauxe dio: 1974 Axular euskal idazle nagusiaren sortetxea 1556-1644 Ayuntamiento de Urdax - Diputa-

ción Foral de Navarra - Academia de la Lengua Vasca.

Oroitarrak agertu eta, Arizkunga dantzariek, eta Martin eta Xalbador bertsoariak saio bana egin zuten.

Nafarroako Diputazioak eskeinitako bazkari ondoan, Zugarramurdi-ko harzuloak ikusi ziren, eta heletan beretan ikusle guztiak edari batak gogonatu zituen herriko Ayuntamientoak.

(Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegoko Agiria).

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

LIBURUAK

ARTEGINTZA, ARTISTA, GIZARTEA

eta

ANTSO GARTZEIZ

Argitaratu ditu GEROK gero eta kimu dugu sailletan.

Edorta Kortadik idatzit du ARTEGINTZA, ARTISTA, GIZARTEA delatza.

Arteaz idazten den lehen liburua duzu.


Ezagunak dira Z. Argiaren bidez Edorta Kortadik arteaz dituen iritzia. Amak emana dio ederraren sena. Baina sortze duen hori landu eta landu ari da etengabe aspaldiko urteotan. Barcelonen azkenez.

Ez da egia, noski, «arteaz ez da ezer idatzirik» esatera. «Ahal duzun gutxi irakurri estetika kritikaz» dioten Rilke-ri baino hobeko da gure Oteizari jarrai gaitzikion: «Nor da edermenari buruz ez dela deus idatzirik esan duena? Gezurra! Bada idatzirik asko. Gertatzen da, ez dugula irakurtzen. Eta hori besterik da».

Artea ezagutzen irakasten digu Edortak. Horretarako argibiderik beharrezkoenak ematen dizkigu hizkuntza zehatz eta sakonez.

Arteari eta artistari buruz dauzun eztabaida bizi guztien berri ematen digu. Azkenik artea eta gizarteaz aztertzen dizkigu.

—oOo—



ANTSO GARTZEIZ, berri, Joxux Mari Arrietak idatzit digu.

Batez ere gaztetxoak begira dago egina.

Nafarroako kondairaren gortearik interesgarrienak agertzen dizkigu. Eneko Aritzaren borroka eta gorabeherak. Hor agertzen da Antso Gartzeiz.

Ez dakigu jendea behar bezala ohartzen den KIMUK zer lan ederra egiten duen gaztetxoentzat. Hutsune handia dago adin horretako jendearentzat euskal liburuetan. Hutsune hau zerbait bete nahirik ari da KIMU.

Bestalde bazirudlen motelentzean zebilela GERO azken aldi honetan. Baina jakin dugunez liburu asko dauka inprimategien.

Laster Xabier Leteren BIGARREN POEMA-LIBURUA agertuko omen da.

Berri pozgarriak, noski, edozein euskaldunentzat.

—oOo—

ARTEGINTZA - EDORTA KORTADI - GERO.

ANTSO GARTZEIZ - JESUS M. ARRIETA - KIMU.

KOLONIZATUAREN EZAGUGARRIA

Larresorok euskaratu eta «Jakin»ek argitaratu duen Albert Memmi idazlearen liburuaren delatza duzu.

Honela eskaintzen digu Jakin-taldeak liburu hau: «XIX mendetik zetorren kolonismoa XX.ean kitatu da, antza. Baina kolonialismo politikoa bizirik egon den garaian, metropoliak giza eta gizarle-modu jakin batzuk sortu izan ditu horri kolonizatueta. Izaera kolonizatu eta kolonizatzaile haien erretratu bat da liburu hau: kolonizatu eta kolonizatuaren aurregiak, alegia. Europako hainbat hizkuntzara itzuli den idazlan honek ez du galduta gaurkotatunak. Izan ere, gizarleak gizarle nagusi, herriak herrien jabe direlako, bti izango da zer esanik kolonialismoaz. Gaurko Europak, ikusten denez, eta areago Ahalduen Handiek, kolonizatzen segi nahi dute. «Memmiren lan hau klasiako da kolonialismoa epaitu eta egungo mundua ezagutzeko».

Bi zati nagusi ditu liburuak. Lehen zatian kolonizatzaileen ezaugarriak ematen dizkigu, esku kolonizatzaileenak eta ezker kolonizatzaileenak agertzen. Ezker bera ere ezin da jauntxo joera horretatik askatu.

Bigarrenean, berri, kolonizatuaren mitozko irudia, egoera eta bi erantzunak ematen dizkigu hiru ataletan.

Liburuari oso interesgarria deritza, mamitsua eta trinkoa.

Euskara, berri, Larresororena. Edonork daki oso ona dela.

Liburu hau lertzeko, ordea, es da aski amaren hizkuntza soilik jakin.



ten. Aldi eta leku askotako ama mordoak irakatsitako euskara jakin behar da. Euskara asko jakin behar da.

Gure euskara hau kultur hizkuntza bilaka dadin urrats bat gehiago eman da liburu hau euskaratzean.

Azkenean hiztegitxo bat dakar euskaraz, gaztelanaz eta frantsesez.

KOLONIZATUAREN EZAGUGARRIA - ALBERT MEMMI-LARRESORO - JAKIN.

Irastortza

ETXKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'edozeu ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilili beti Eskuz ba'ezbiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTITETIK

Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutizkiak: 41 20 65

DONOSTIA


JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietza, 66

DONOSTIA



FAGOR

edaria epela dagola? FAGOR'ek oztuko du bereala




Donosti-Currerki-Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikal Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserrri, lur-tresnak ta aber Torrelavega'ko Perira Joan etorriak

Baserrriaren alde



Transportes

azkar s. a.

ERAMAN - EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK

Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostitik egunero:

Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alcantara, Elche, Elda, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.

Astean irutan:

Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coruña, Orense eta Vigora Joan etorriak.

Hernanirako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.

Urrutizkiak: 552650 - 552654 Apartado 1361

zaldibia

Programari buruz: Joan zen asteko Zeruko Argian ematen genuen Festatoko Egitarauaren berri, baina aldatuta txiki bat edo beste gine behar izan arkitu gara.

a) Urrietako Egi-Bila taldeak etortzerik ez duela izango eta beste talde batekin gaude harremanetan.

b) Bi arrijastozaila izango zirela esaten zen baina Endaia eta bakkirik etorriko da eta berak egingo ditu biren lanak.

ZALDIBIA (Festatoko saio berezia)

Zaldibia, aurrez aurre, Naiñarri begira dagoen herri txiki bat da. Bi mila bihurtu inguru izango ditu. Kanpotik etorritakoak ere ba dira gure herrian. Berreunetik gora izango dira.

Sei baldia nagusitan banatzen da Zaldibi: Kalea, Elbarrena, Olatia, Aiestaranerrea, Urruerreka eta Arrubi. Baiakara bakoitzetik erreka xistor bat jeltzen da eta Amundarin erreka biltzen dira ur guztiak. Zaldibik, mendia gertu eta ez dauka ur faltarik. Halaz guztiz ere Bilore fabrikak asko behar nahi baita eta inoiz edo behin egun gerra urik gabe.

Beste herri batzuek ibili dira Zaldibitik ura eramanez. Ez dakit hiri zertan gelditu zen, Aiumtamendua bera ere kontra zen eta.

AZKEN HAMAR URTEAK

Azken hamar urte hauetan obra asko egin da. Egin diren obra asko izanek hauen dira: Gure Ametsa, Leku eder, Barandiaran Grupoa, Aiumtamendua aurreko saila, Martinarotzane eta mediku etxearen tartean egin dena eta azkenik Mendidond. Guztira 150 biliztatik gora izango dira.

Bilore jabetza fabrika, Yany muelle fabrika, Ormazabal arotzeria eta Txindoki tella fabrika dira industriarik inportanteak. Gero Zaldibi bidean badira beste enpresa bat edo beste nahiz eta beste herri bateko terrenotetan egin. Zaldibitik daude gertuen Gaiztaña Kaldereira eta orain sortu berria den "Copreci".

Zaldibiko jendea artzantzan eta nekazaritzan gogor jardundakoa duzu orain dela urte gutxi arte. Gaur egun oso artzi gutxi dago eta baserrira bakarrik deklakizen denik ere gutxiago. Goierriko enpresa guztietan bila leike zaldibitarren bat. Gehiena Beasaino C.A.F. en.

Udaletxeak bere aldetik Parbularioak egin ditu. Orain dela lau edo bost urte herriko plaza konpundu eta arabak aldatuta daude, Zikinkeria guztia biltzeko eta desegiteko kanala eta putzu egiteko proiektua ba bada hiru urte hontan gutxienez. Aurretik frontoia arreglatu dute eta hainbat hipizide atara arazi dituzten komunak ere bukatu eta zabaldi dituzte.

HERRIAREN IZAERA

Zaldibiko herriak terrenoetan balarre dexte dauka, batez ere pinduetan.

Azkenaldia hontan, sei hilabetetik gora, kartzelan zortzi egon dira eta oraindik ere 3 han daude.

Izuetia, Lardizabal eta abar oso gizon inportanteak izan dira.

Herri osoak euskaraz badaki, kanpotik etorritakoak ere askok ikasi dute. Zoritzarrez badira bertakoak, bost arola zaien gure Hizkuntza eta kultura. Zer esango diezu ordea bere personalidada salteko ere kapaz diran hoi?

Jende helduaren artean nabarmen dena oraindik momentu historiko batek utzi zuten zatiketak eta ondorioak. Gazte jendeak berak aukeratu du bidea.

Sesioa eta nahaspilla asko izan da beti gure herrian. Orain ere izango da seguru aski. Bada ezertan sartzen ez den jendea ere.

Zaldibiko festak oso sonatuak dira. Norik ez ditu ezagutzen hemen egindako monedjak?

Gaurregun festak aipatzek biltzen haundia ematen du. Izan ere hainbat gertakizun...

Festa eta gure jaialdiak lanaren zati bat gehiago bezala izan behar dute, ekitza bat gehiago gure herriaren alde. Festak ez giteka lan batzuk utzea da beraz. Nolanahiko festak eta jai aldiak ez dute izan behar noski, gure arazoak erantzunago dietenak baizik.

AURTENGOKI FESTAK

Eta goazen piska bat ikustera aurtengo festak: Bi sail haunditan banatuak nituzke nik:

a) Euskal jokuek: Arrijastozailak, Soka-tira eta pelotariak.

Hemen jarri ditugun joku hauek oso bereak ditu Euskal Herriak. Oso bereziak. Bereizkuntza hortan dago bada Herri baten oinarria. Ez genezake neurtu zenbaiterako inportantzia duen, baina berea bai.

b) Bertsolariak, Abeslariak, Musikoak eta antzezleriak.

-oOo-

Hasi gaitzen banaka bertsolarietatik. Bertsolaritza izango da Euskal Herriak duen gauzarik harri-garritenetakoa. (Rima, Gaia, Neuria, Araroia, Hizkuntza) denak gogoan eduki behar ditu bertsolariak batak.

Ideiak, direnak direla, bapatean, kantuz hitz neurtueta inxurtzea ez da nolabehar artea. Baina gizon horiek duen merituaz ez gara ariko. Zaldibiko Zergatik ekarri ditugun eta zein ekarri ditugun azaldu nahi diezugu. Eukalerriak ahozko literatura oso aberatsa baldin bada bertsolariak esker da gehien bat edo dena. Bertsolariak herriaren auzo-hizkuntza ibiliko du. Euskeraren eustiza dira nere usiez, herriaren esanatzaila ere bai ibiliko dituen gaingatik, eta, azkenik, hizlari bihurtu zaigu bertsolaria. Disimulu ederrean eta oso errez konprentziteko eran esango ditugun gauzak. (Hizlari izate horrek baditu bere arrikua baina hori ez dago hemen aztertzerik). Eta beren ateraldi eta xelebrekeriekin amaika une alai pasa arazten du bertsolariak.

Zaldibien ere badugu bertsotalek auzo, baina gauzak bestek egin da gustatzen zaizkie. Bertsolariak jarraipena behar du eta horretarako bertsolariak gasteak hasi behar dute lanean. Badakigu berresko baina duela baina landu ere egin behar du. Horregatik aurretik Zortzi bertsolari gaste dakazkigu gure herria. Hamasei urteko hitz horetan sei tarte hortan egongo dira. Hauetxeak dira. Errazkingo Argiñarena, Aiako Otamendi, Ataungo Begiristain, Azkoitiko Aitola, Gabirio Murua, Itxasondo-ko Zeberio, Azpetitiko Lizaso, eta Urrietako Otaño. Guk entzun ahal izan diegu bertsolari hauen eta etorritzen oneko bertsolariak jurtzatu ditugu.

Abeslariak: Bertsolariengatik bezelaxe esan genezake herri esanatzaila direla eta gaur, horrezaz gainera euskal musika landu dute. Euskerari indar handia eman diote azken urte hauetan. Esate baterako, emakume jendeak erderaz egiteko joera handia zuen gure herrian batak eta bertsolariak jeneralean gizonetako baino gutxiago gustatzen zaizkie. Orduan emakume artean euskal zaletasuna sortzen eusten dioneko eta kantuel esker lan handia egin da. Gaur euskal diskoak nunnahi entzungo ditugu. Abeslariak esker leku askotara iritzi da euskeraren zantzuak. Bestalde, hauek kantetan dabilizkien gauzak oso interesgarriak dira: Langilerien egoera eta abar eta abar.

Antzezleriak: Zoritzarrez guk ez daukagu zinerik eta guk ez daukagu ezer. Ez eta telebisiorek ere nobelak botatzeko. Eta euskal teatroan lanean ari direnak gutxi gainera. Gure problema baten agerpena egiteko egokia teatroa eta arte aldetik balore haundikoa beriz. Indar bat eman nahi genioke teatroari, gure kulturaren zati bat gehiago denez gero; baita beste gauza askotatik ere bai. Gaia eta abar.

Musikariak: Euskera etxean edukitzeko bakkarik alferrik da eta jeki dedilla kalera, horregatik euskeraz kantatuko duten bi talde nuen: HEGAN ETA OROITZAK eta gure gaia euren saioetan.

-oOo-

Ikusten dituzue gure asmoak. Zaldibiko festak lagun dezatela Euskal Herria oheagotzen. Herria kontzentziazten, langileak sortzen eta piskabat gehiago helburu nagusia gertutuz.

Euskal liburu eta diskoen azoka ere jarriko da Guraso Elkartearen bitartean. Hitzaldiak batzuk ere emateko asmoa bada baina hiri irratik bidez adieraziko dugu bere garaian.

Bestalde badakizue gure herri hontan beti diru faltan gabilzala.

IKASTOLA hor dago 100 ume eta gehiagorekin eta urtero kantatzen diren dautu: ZOERAK. Bere alde ipiniko dira tonbela, taberna eta beste ekitza batzuk ere bai. Salokak ere arreglatu ziren eta oraindik zor guztia ordaintzeko. Herriko beharren alde izango dira ikuskizun guztiak: Pelotariak, Abeslariak e.a.

Ikusten duzue beraz hemen gauza askori begiratu beharra dagoela.

Batetik festak herri lan bezela hartu beharra dagoela eta bestetik herriko ekitza diru aldetik lagundu beharra. Ahal dena eginda ere bada hemen nahiko lan.

Ondoren arte

GIRIO

getaria

ZERBAIT EGIN NAHIAZ

Nuklear zentralaz herriarrok informatu nahiaz bildu dira herriko elkarteak Guraso Elkartearen babespen. Beste herrietakorekin ere eduki nahi dituzte harremanak, elkarrekin zer egin diteketeen ikusteko. Dagoeneko laguntza apur bat ukan dute beste herrietatik baina gutxi izan da hartu dutena eta guttiago eman duena. Hasapenetan dabilte, nonbait.

Nik neure aldetik hau eskatuko nuke: ematen den informazioa gure jaituraren mailakoa izan dadila. Gaia berez nahiko koraplotsua bait dirudi.

UDALDIA AMAITU DENEAN

Kemen berriaz ekiten diegu herri arazoel udazkenarekin.

Izadiak iragertzen duen heriotza garatu nahiko bagenu bezala, Sentipenak hartara garamatza. Baina sentipenak arazolaren igurtzia behar du. Sentipenez jakatu behar dugu herri arazoetan, baina nolabait programatu egin behar dira sentipen bultzadak.

Bai, Xixangreak ere, bere mtozen, beharrezko ikusten du sentipenen azterketa bat. Baina ezin du sinetsi adimen hotzeko egitea.

Agian gure sentipenak kutsatutako daude tradizioz gure arazoetarik baino: lehen begiratu batera, badirudi arazoela funtsatutako dagoela zientzian. Baina ezda hau oharatu behar: zientzia oraindik ez dela iritzi giza errealtate guztia aditzera.

Gaurkoak honekin bukatzen dute: Biltzarren gupilean ziko batzuk emankorregoko agertzen dira. Ziklo Horietako berne bultzadak aprobetxatu egin behar dira. Baina hor dago gure adimena, emankortasun hori bizieta gurea luzatzeko. Hori nola lor dezaguke?

XIXANGREA

errezil

UMEAK

Oporketak igaro ondoren, asi zaigu ikastaro berria. Ori dela medio, kale eta eskola inguruetan umeak biltzen asiko zaizkigu. Izan ere ez dakite gure umeek nun biltu, ez dakite denok batera bat eginda egoten.

Ikastaro berria dugula eta or

ikusten ditugu, korrika eta saltoka eskolarik ez duteneko ume libretan. Eskola bukatu eta or doaz beren etxetara.

Ume asko biltzen da oraindik errian. Errezilo etortzen oiek dira. Ala ere, or dabilza arrotzak izango balira bezala, non bi nora jo ez dakitela. Errian ez dago umeen arretarik, «tresna» bezala arzen ditugu, infortxo ere ez da kezkatzen, eta denok gustora!

Igandetan berdin, ez dakite non biltu: or dabilza bere gisa frontoian eta erriko enparantzan. Ez die inork abestirik irakasten. Izan ere ez da kulturadunik inor errian. Obeto esan, bada kulturadunik errian, berrin buruak oso kultotzat dituztenak, baina berolentzat gordetzen dute beren kultura zakuan sartuta, bestori ezer eman gabe. Tamalgaria, zinez!

Malsu, apaiz, agintari, erriarrok oartu gaitzen umeek beren tokia bear dutela errian. Oiek ere ERRIA osatzen dutela maixu, apaiz, agintari, sendagile eta beste edonork bezala.

Ea ikastaro berriari asera eman digogenez gero, gure umeekin zerbait egiten degun. Bestela, izango degu, astoen fama. Zibilizazio pixka bat bear degu.

ALBISTARI

—Ezkundu zaigu Luisito erriko semea ere. Loidi-saleteko semea. Bertsolaria, leiza eta aspaldin isilik egon. Senar-emazte berriek, goraso eta gainerontzekoei gure zorianak, pakea izan dezazuela zuen sukaldean.

—Zurumurrur bat. D. Pedro badoala? Guk ez degu uste eta ez gurena nai. Naiz eta beste batzuk besterik nai. Bakotzak bere iritziak du.

—ERNIO-jaietan gaude. Eguraldi txarrek izan ditugu orain arte. —Zer moduz Erroman jauna? Gu beti bezelaxe atzarrika. Zure omenaldiaz inor ez dela gogoratzen badirudi. Baina ez oraindik itxaropenik gal. Beste bat arte.

—Gure lanak noiz agertuko diren zai egoten direnak badira. Pozten gara. Leizotzen batek onela esan zidan: ire lanak irakurtzen zaitat eta benetan pozten nauek. Akatsa batzuk badituk ala ere. —Ze akats?

—Erriko euskera erabiltzen deala. Euskera BATUA erabiltzen es adi. Denboraz denak egingo zetiagu. Denak batera egiten zaila dek eta. Eskerrik asko, lagun maite orri. Salatuak gaituk.

ERNIO ARRI

gogor eta ikusgarria benetan. Bein eta berriro mutrikuar gazte indartsuek, garbiri azaldu zuten kirol lan orretan duten trebetasun eta egokitasuna. Ikustekoa zen talde bikiari onen biziatsun eta garra, indarra eta adorea, bal aserako ekitadetan eta ondorengo teinkadetan ere. Garbi azaldu zuten indar aldetik ongi omittuak zudela, eta teknika aldetik ongi eziak eta ikasak. Inork uste ez zuen aibateko kementa eta egokitasuna azaldu zuten LAUKANIZKO soka-tirako txapelketan. Azken garapen onen iru urtetan errezadun txapela etxera dute gure gazte bikain auek.

Leenbizi, Markiñan 1972ko Ekainaren 6an, Espainiako Txapelketa Irabazirik. Bederatzi talde ziren elkarren artean burrukatu zirenak, talde oietako batzuk ospe aundiko soka-tiratzailak, indarrez ondornitutako taldeak.

Gero, Abenduaren 3an, ZARAUZKO pelota lekuan Euskal Erriko txapelketa jokatu zan, Euskal Erriko talde bikainenak, Erriko artzen zutelarik. Laukiniz, Ernai, Erandio, Urrieta, Eskoriatza, Zaratza, Dima, Arangotzi, Agina, Mendexa, Urretxua eta Mutriku. Zazpi talde gipuzkoar eta bost Bizkaitar, Mutrikoarrek garailu izanik.

Gerotxuago, Europako txapelketa zela eta Gasteizko futbol-zelaian ingelesan auzko jokatu zuten, baina an ez zuten irabazterik izan, naiz eta guretarrek indarrez sendoa arkitu; teknika aldetik ingelesak asko obeto gertuak zuden.

Orain berriz LAUKINIZEN. Oia emen talde bakoitzaren sailketa edo klasifikazioa: Mutriku: 18 puntu, Espainiako txapeladun, 15.000 laurleko eta Bizkaiko gobernariaren saria; bigarren, Laukinizko Gazte 16 puntuekin; Ondoren, Fruniz, Arangotzi-Bilbo eta Avellanad 10 puntuekin berdirnean. Valle de Cadagusk 8; Retuertok 6; Santurze 2 eta Lutanakoa Peña Laukio 0. Guztira bederatzi talde, bizkaitarrak zortzi eta Gipuzkoar bat.

Aukera-aukerako taldea osatzen du Mutrikuko «MIJO» bailerako gazteria lerdan eta Irailak. Emen beren izenak, urteak eta pisua. Sebastian Ituarte, Rufino Ituarte, Jose M.ª Egaña, Juan M.ª Egaña, Jose M.ª Astigarraga, Pedro Alkorta, Jose Alkorta eta Jesus Xurruka. Urteak, batanaz beste ogetia bost; talde osoaren pisua zazpiro eta emezortzi; larogetia hamar kilo inguru bakoitzak. Bejaindezueta eta aurrera mutillak.

Gure zoriarik beroenak soka-tirako txapeladun diran gazte jator auel.

ERIOZAK

Irailaren 22an il zitzaigun 72 urterekin, Iriondotar Lorenza G.B. Emakume zintzo eta euskadun jatorra. Eusko antzezleri ospetsua izandua. Bere alpa, ezkon-anala eta illobei, gure samina-aurra.

Irailaren 23an, Jaunaren besotan il zen, Aramberria eta Olanguren-tar Marzelina, andre elizko eta erriararen artean oso ezaguna. G.B. Bere semealabai, illobei eta aalde guztiei gure samina-aurra.

ANDONEGitar Z.

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Jenari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, berebiziko aragi pillak; gainera esne putzuak, Oiek guztiak berekin dituzte Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

lezo

URTEROKO GOGOETAK

Santakruzetatik Santakruzetara neuritu ohi ditugu urte guztiko gure eginkizunak eta bukatu direnez gero egoki da gertatutakoak begirada jotzea eta beste urterako asmoen aztertzea.

Igazteetatik aurtengoetara bada aipatzeko franko eta, nere uestan, batez ere hauek: Allerru Elkartek antolatutako Ibilaldi neur-tua, Haur-astea eta uztaleko aste-berriemate famatu hura, Batzarre Nagusia ahaztu gabe. Udaltxea asko mugitu da: argi berria dela, ur gehiago erakarri, kaleak eta Beheko plaza berri, Kamio-berria markatu, kamioientzat herrian sartzeko orduak ipini... ez da gutxi. Ikastola ere ez da gertatu egon, ezta gutxiagorik ere: nahi bezala gertatu ez bazen ere I Euskal Kultur Astea antolatu, maiatzean hitzaldi bat, Batzarre Nagusia... Beste aipatzeko ere bada noski: Don Inaziori omenal-dia, Gabonetako giroa, herrian bi-zi den jendearen gutxiagotzea (no-labait esateko), San Juan Bidearen konpontzea (ez dago oraindik zeharo bukatua, baina), Bazkoak (programak bi hizkuntzetan, anto-laketa, e.b.) eta buruan ez ditudan beste batzuk.

Baina orain aurrera begiratu be-har dugu, ezin bait dugu urtebet-e alferrik galdtu: bakoitzak (elkar-te nahiz herriar nahiz taldek) azter-ditza bere asmoak eta has dadi-

la su eta gar lanean bere helbu-ruak lortzeko.

SANTAKRUTZAK

Aurtengoak, ohiturarik ez galtze-ko, nahiko pixontzi izan dira: egu-raldiak ez du askorik lagundu bai-na euria goian behean izan arren ez zen plitfin bat ere festa girorik hoztu. Hilaren 13ko eguerdian, os-tiralez, hasi eta 16ko gauan, as-telehenez, bukatu. Haseko eguna haurrentzat antolatua izan zen eta azkena, berri, zaharrentzat.

Bazkotan bezala festen antolake-ta asko herriko elkarte esku utzi da, baina programak euskaraz bat-ztuz eta erdaraz besteak egin di-ra, ez elkarren parean aurreko txandan bezala.

Festa hauek izan ditugu: txistu-lariak eta buruhandiak (bost bi-der), haur-jokoak, pelota parti-duak (hiru), txirrindulari proba, toka, harrijasotzaileak, haizkola-riak, balonmano, "tiro al plato" defak, Elias Salaberriaren oro-garrizko VII pintur-lehiaketa eta erakusketak, danborrada, dantza as-katua, dantza taldeen agerketak, zanpanzar, bersolariak, "Intxixu" antzerki-talde oiarzuarraren "Orria 778", dantza soinua (lau aldiz), "Aldeguna" txaranga, fanfarea, mezak (bi) irratsaioa eta zaha-rrerentzat bazkaria.

Aurten ez dugu rondallarik (zo-rionezi), kantaririk eta Santa Ce-cilia koral gure artean izan, baina ezta igaz irratsaioak, txaranga baina ongi antolaturik eta dantza-taldearen agerketak ere.

Jende asko bildu da eta larun-batean eta igandean kanpotar as-

ko, besteren artean Gurutze San-tuari urteroko bisita egitera.

IKASTOLAREN ALDE

Baina Santakruzetako albiste hau ez litzateke behar bezalakoa izango Ikastolaren alde irekitako taberna alpatuko ez balitz. Aspal-didantik joan den urtean bezala ta-berna eta antzeko zerbitzu ireki na-hi zen, baina kalean: gorago esan bezala, ordea, euria maiz eta uga-ri izan ohi da Santakruzetako eta, Pasamontes-enea aspaldi xamarre-tik hitsirik dagoenez gero, Estefa-nari galdetu eta baimena eskatu zitzaion festetan Ikastolaren alde irekitzeko. Bai gozoz eman ere!

Ostiraletik astelehenera han zen-bat jende sartu den inork ez daki. Hura jendearen emana. Hango lau egitea. Edariak, otorduak, denetik bazen. Tokirik ez zenean, ateri ba-zen, kalean eta guzi mahaiak. Ate-ri ez bazen, barruan eseritakoak noiz altxatuko zai.

Lan asko egin da; han ikusi zen Ikastolaren atzetik herri bat oso-rik badagela lanerako prest, zer nahi egiteko: sardinak erretzeko, marmitakoa maniatzeko, sukalde lanak egiteko, platerak garbitzeko, serbitzeko, mahaiak txukuntzeko... zernahitarako, zahar eta gazte, ez-kongai, andre eta gizon, neska eta mutil jo eta ke ikastolaren alde lanean pozik.

Askok ez du festarik ikusi, bai-na esaten dutenez bere bizitzako Santakruzterik onenak aurten pasa omen dituzte. Izan ere herriko to-ki gutxitan izango zen han beza-lako girorik, lanerako zein solase-rako.

Datorrenean ere beste hainbeste gu; gainera orduan eta hobeto an-ikusteko aukerarik izango ahal du-tolatuko bait da.

Lezo osoak egin bait du lan bere Ikastolaren ala.

SISTIAGANEKO PELLOK

ernani

EUSKAL IKASTAROA

Euskara ikasi eta alfabetatzeko kursoa egin nai dutenak orain

daude garai onean. Arri-Burnik eratzen duen Euskal Ikastaroari laster asera emango diote. Bertan, nai duten guztiek parte ar deza-kete. Beraz, euskara ikasten eta alfabetatzen ardura jarri nai du-nak jo dezala Arri-Burnira izena ematera. Urriaren 6a arte ipilfi du-te eratzaileek izena emateko epea. Arri-Burnin, arratsaldeko zazpieta-tik bederatzia bitartean, norbait izango da izenak artzeko.

Ez dakigu kursoa noiz asiko den, ez egunik ez eta ordurik, haina, noski, datorren illean izango da aserara.

Talde bakoitzarentzat, maila ba-koitzarentzat, astean bitan izango dira klaseak. Baina gora-bera auek Arri-Burnin argituko dizkizute bear dan garaian.

Izkuntza indartzen saia gaitte-zen. Batzuk erakutsiaz, besteak ikasiaz. Ala, denok, euskeraren al-de lana egingo dugu.

BOUTIQUE

§ nekane §

Gazteen, Boutique

31 agosto, 5

— DONOSTIA —

Urrutizkifia: 41 18 75

ZOZKETA 3 BIZITZA

Irabaz ezazu etxe bat gurekin aurreratuz



Jartzen duan milla pezeta bakoitzeko txartel bat jasoko du, eta baita Jeenago jarrita daukan 5.000 pezeta bakoitzeko ere. Baiña gutxienez milla pezeta jarri bearko ditu. Aldi-jakiñeko kartillaren bidez zenbakiaz jabetzeko, ordenadorez 5.000 pezeta bakoitzeko zenbaki baten jabe izango da. Saldoan zenbat 5.000 pezetako ainbeste zenbaki jasoko ditu.

Aldi-jakiñeko kartillaren bidez zenbakiaz eskuratzeko Gipuzkoan zehar "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" etxeak banaturik daukan 91 ofizinetara jo dezakete. Aldi-jakiñeko kartilla eta Noiznaiko libretak irikitzen ditunak txartel bat jasoko du milla pezeta bakoitzeko.



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

ELIZAREN BERRI

KRISTAUTASUN ETA TXINATAR
ESPERIENTZIAREN ERLAZIOA

Irailaren 9-14 bitartean, tituluan aipaturiko gaia, elkarriketa bat burutu da Loyalman. Protestante eta katoliko erakunde pare batek taxutua. Ehun bat sinologo (Txina-jakintza) bildu dira.

Beti izan da mendebaldarontzat Txina jakimaina sortu digun lurralde enigmatikoa. Eta beti atxiki izan dio Txinak bere izkutuari, gure begietatik ihes. Egun ere, aski lausopean geratzen zaigu. Halaxe aitortu dute aipaturiko batzarkideek beren elkarriketan.

Halatan, zail egiten zaigu irizti zehatzik ematea Txinari buruz, eta Txinari dagokion zehazkiri buruz. Halere, kristauak beti amets egin izan dute kristautasuna Txinan nola sartu. Ahalegin nagusi asko aipatzen ahal ditugu kristauen aldetik gogo hori mamitu nahirik. Lehenbizikoz, 7. mendean; gero, 13. mendean (zenbait frantziskotar); hurrena, jesulagunak 16. mendean, eta azkenik, 19. mendean, kolonisten babesean misiolari sail bat harutz sartzien zelarik.

Halaz guztiz, inoiz ez dira kristauak %1 baino gehiago izan Txinan. Eta 1949an, komuniskak agintara heltzean, %1era ere ez ziren hiltzen (guztira, 3 mili).

Horiek horrela, zer du ikustekorik kristautasunak egungo Txinari? Nola juzgatu Txinaren esperientzia berria (komunistak agintean daudenetik bizi duen) kristautasunari buruz? Horixe zen goian aipaturiko elkarriketan hartu zen gaia.

Zenbaitentzat, Txinak hartu duen bidea "giza kon-trakoa" da, deabrukoa.

Beste batzuentzat, aitzitik, positiboa da txinatar esperientzia hori. Aipaturiko elkarriketa horretan, honela zioen bazkide batek: "Egungo txinatar gizarte hurbilago dago gizarte zuzenetik —Jainkoaren erre-nutik, nahi baldin baduzu— gure gizarte hau baino. Enetatzat —zioen— Txina da kristau erresuma baka-rra, erlijio orori uko egin dion arren. Non dago, bada, Kristo? Onak —ontasuna— aurkitzen den tokian, hau da, Txinan".

Noski, denak ez ziren irizti berekoak. Gainera, ez-jakintasun handia dugula aitortu zuten Txinari bu-ruz. Baina, bat etorri ziren Txina komunistan bu-ru-tzen diren alderdi onak aitorzerakoan. Txosten batek honela dio: "Gizon berria, Txinan, bere altruismoaz bereizten da, eta bere bizikera kolektiboa, herriaren aldeko konpromisoa bizi du, gizartearen burutzen diren zeregin desberdinei itzal edo sari handiagoz egaz-uzen ez zaielarik".

Aitzitik, ordea, horretara iristeko, gizarte modu ho-rretara iristeko alegia, erabili dituzten hidae azter-tzean, banatuago agertu ziren bazkideak. Jendea ho-rretara, zioten, indarkeriaz (beldurra sartuz, bortxaz) ala komertzimentuz jarri ote dute? Puntu hau ez zen hain garbi ageri.

Dena den, konklusio nagusi honetara heldu ziren bazkideak: "Kristaun egitekoa ez datza Txinarekin polemikari ekiten, beste honetan baizik: Txinak es-kaintzen digun desapioaren argitan kristau mintzera eta praxia aztertu eta berritzean".

AMUNSA

NAFARROAKO ELIZA EUSKALDUNTZEN

ERABAKIAK

Apaiak euskaltzale izan duen he-rriak euskaldun irau du Nafa-rraan. Baina, zoritxarrez, herri as-ko erdaldu bilakatu da apaiza-ren zabarkeriaz. Askotan aipatu den gertaera dugu hau.

Nafarroako Eliza bekatu horre-taz oharu eta damutu dela diru-di. Erabaki zuzenak hartu dituzte bertako bi gotzainak. Zorionak!

Gotzai-eskultzik, eliz-agiriak eta eliz-aldirak euskaraz ere argita-ratuko dira.

Euskara hutsean egingo dira eliz-kizunak erabat euskaldun diren herrietan. Gehiengo euskaraz mintzatzen den euskaraz izan-go da nagusi elizkizunetan ere. Ia galdurik dagoenentz da erabat baztertuko. Iruñean eta honelako herri hamidietan euskaraz ere ipi-ni behar dira elizkizunak.

Elizaren ikastetxeetan mezak eta elizkizunak euskaraz egiteko ardu-ra izango da.

Arau hauek denak berdin balio dute kristau ikasbidea irakastera-koan ere.

AZTERKETA

Asko poztu gaitu erabaki honek. Euskaldun izan nahi du Nafarroa. Eliza ere jabetu dela horretaz dirudi. Bazen garaia. Betaz izan gintzek oraindik. Ez ahal da be-randuegi izango, noski. Desuskal-duntzen egin duen hainbat eus-kalduntzen egiten badu egin dion kaltea behintzat ordainduko dio. Halere Nafarroak eta Euskal He-rriak ez dio zorrik izango. Kitoan geratu da.

Zabal gaitzen Euskal Herri oso-ra. Zenbat gotzai dauzkagu euska-raz itxurantz egin dutenak? Zenbat euskaraz ez dakitenak? Ez al dira hirietako parrokiak, apaiz-gaitegiak eta gotzaidiko lantokiak ez dakiten apaizen habi goxo izan

zenbait eliz-barrutitan? Ez al da-go euskaraz ez dakien apaiz ge-hiegi gotzaidiko lantokietan?

Eta elizaren ikastetxeak? Ez al dira erabat erdaldundu pralle eta mojaketean sartu ziren erlijio-so-rik gehienak? Ez al dute euskal-dun morda azeritatu? Zer kul-tura hartzen dute hoietan dabil-tzen ume eta gazteak? Ez al dira elizkizunak eta kristau ikas-bidea bera ere erdara hutsean ematen?

Ez da denbora asko eliz-agiriak (batale, ezkon eta hileta-agiriak) euskaraz egiten zuten apaiza zi-gortua izan zela.

Denak euskaldunak ziren Gipuz-koako "mixerikordia" batean jator-duetako oitotzak eta eguneroko erroarioak erdaraz esaten zizkien bertako zaharrei moja sartu ze-nean euskara besterik ez zekien moja batek. Gaur bertan ere hala jarraituko dutela uste du.

Euskaraz ez dakien apaiza izen-datu dute euskaraz mintzatzen den Gipuzkoako herri bateko koajuto-re, aurren bertan. Baserritarra bes-terik biltzen ez den ermita batean

erdaraz ematen da iganderoko me-za. Erdaraz gertutu dituzte Gipuz-koako parroki batean lehenengo Jaunartzea egin behar zuten ikas-tolako haurrak.

Bilbon, Agustinoen San Jose eli-zan ginen, irailaren 28an, hileta-elizkizunetan. Ez zegoen euska-rakzko liburutik apaizek meza euskaraz eman zezaten.

EZ DA ASKI

Elizak asko egiten duelaokoa egongo da norbait. Ez du egin eta ez du egiten egin behar lukeenik. Ez dira aski euskararen aldeko go-raipenak eta erabakiak.

Ez da aski erdaraz egingo duen hitzaldaren haseran, "zoritxarrez ez naiz euskaraz moldatzen eta er-daraz egingo dut, barka egidazue", esatea.

Bagara ala ez?

IRAOLA

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA

Del honi jerraltuz bezatuz zure erlojua KANARIAS b'rtan belfio merkeago erosko duzu

Matxin Arzu, 1

ONDARRAZ

AETATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta)

DONOSTI

Erromako Sinodoa

JAINKOAREN ITZA

Irailaren ogeita bostean idazten dut onoko au. Argitaratzerako, bi-duak izango dira Erromako Sinodoa, bazter guzietatik joanik, 213 Gotzai, Artzobispu eta kardinal, Astindu eta aztertu bearreko gaia auzen dute: «NOLA ERAMAN BERRI ONA GAURKO MUNDURA?»

Benetan ajola aundiko gaia. Garaian garaiko gizona salbatu bear du Elizak eta Jainko-itzaeren bitartez doako gizonari, batik bat, Salbazio ori. Jainko Itzaeren jabe, Berri Onaren mezua, Nola eraman gaurko gizon eta munduari?

Erraxa galdera, baiña korapilloz bete erantzuna. Berri Onaren Zabal-kundearen, leenik, **izpirituari** utzi bear zaio lan egiten. Izpiritu onekin ba-tera, ordea, Elizak bere doai, esperientzia eta jakiteak erabili bear ditu, alik ongien, Berri Ona, Gizonaren biotzeta eramateko. Bestetik, gai-nera, gaurko munduak, guzia auzitara darama: Ebanjelioa bera ere, ez-tabaldan, kritikapean jartzen digu. Salatua da, baita, Elizetako Izlarien mintzera ere: Ez da berdina oi askotan gure laboratorioriko izkuntza eta jende xeeak darabillkiena; ezjakin aundiak omen gera erri-jakite eta kul-turan eta orrela ezin ba jaso Berri Ona Gaurko Gizonak bere biotz barnean.

Zailtasunak badatoz beste bidetik ere: Otoi gozo batean jarduteko bakarrik ez dira Igandeko Meza Santuetako Eukaristi Batzarrik; Jainko Itzaeren bitartez, konpromisoak, eguneroko bizitzarako artzoko, ere biltzen da, Jainko Erria. Gure Igandeetako Meza Santuetan era guzietako jendea biltzen da; aurtxoak, gazteak, zarrak, langilleak, aberatsak, ezkongai, ez-konduek eta aber. Guztientzat, Jainko Itza, apaiz bakarrak adierazten du; Ainbat eratako kristauak, bakoitzari dagokion Jainko Itza, gizarte-kompro-misotan sartzeko, bakar-izketan ari dan apalzi, eman aal izatea, oso gauz zaila deritzait. Orregatik, Ebanjelioaren araura, lurreko gatz eta argi izanik, kristau konpromisotan bizi nai dutenak, beste erako Euka-risti Batzarretara jotzen dute. Naiago dute taldeetan elkartu, Homilia elkar-izketa batean biurtu, seriozki gizarte bizitzan kristau konpromisoak betetzeko.

Orain arteraño, batik bat, Berri Ona kristau biotzetan sartzen aale-gindu oi gera Elizan, Gaurko egunean Elizatik urrutiko dabil jendea, batez ere gaztea. Elizatik kampa dabilzane, nolatan eraman Berri Ona? Ez da erraxa... Aurrekin Nola joka Kristau ikasbideko erakutsiak mamitu eta eguneroko bizitzan ezarri-azteko... Misiogetietan nola joka...? Gal-derak eta galderak. Aski lan badute Sinodoko Gotzaiak korapillo auk eta onelako beste asko asatzeke.

NOREN IZENEAN?

«NOLA ERAMAN BERRI ONA GAURKO MUNDURA?» Benetan gai zaila eta guztiz intergarria Elizarentzat. Ez dira makalak izango Sinodoko Gotzaien buru-azteak... Zenbateraino ordea kezkatu da Jainko Erria? Sinodoko Gotzaiak, noren izenean bildu dira? Nazio bakoitzekoak, bertako beste Gotzaien izenean? Gotzai ordea ezer ez da Jainko erriko apaiz eta kristau sekularrekin bat egirik ez badago. Ez-balrik gabe, gure ar-teko Kardinal eta Gotzaiak, Sinodora joan aurretik, Barruti bakoitzeko gotzaien irizizak jasoa zituzten noski. Zenbateraino ordea Españiko Estadu barneko Gotzaiak aalegindu zaizkigu beren apaiz eta Erriaren Irizizak, bakoitzak bere Eliz-Barrutian, jasotzen? Nola eraman Jainko Itza aran-tzealari... langilleari... nekazariari...? Auen irizizak jakitea aberasgarri zi-tizien ba Sinodora joandako Gotzaiak...

IKASBIDE BAT

Gai onetan guretzat ikasbide izan daiteken zerbait Frantziatik dator-kigu, Irailaren amaieratik amabostera Batzar Nagusi bat eratu zuten Fran-tziako Elizak. Eun eta ogei Gotzaiak berrogeita hamar sekular; eta apaiz, praille eta moja mordska bildu ziran. Berrogeita hamar sekularrak Fran-tziako Barrutiko beste askoren izenean bidezartu ziran; oro bat apaiz praille eta mojak, Sinodoan darabillkiten gaiaren antzekoa aztertu dute: «Gizonen askatasuna eta Kristogan Oasuna».

Batzar Nagusiaren aurretik, ilabeteetan, Barruti bakoitzean, Parrokiko apaizek beren eliztarrekin biltzen ziran gai ori aztertu eta irizizak ema-teko. Barruti bakoitzean, Parrokietatik zetozten erantzunekin «bilduma» bat egin zan. Barruti bakoitzeko bildumak astindu dira Parisko Batzar Nagusian, guzieki orantzunak entzun ondoren, azken erabakiak artzoko.

Dirudiane, guzien artean elkar-izketa ederra izan da. Arrigarriena, Gotzalek ia batere ez zirela mintza; naiago omen zuten entzun. Apaiz-tan aundienean ikasle bezela egon omen dira. Marty Kardinalak esan zuen: «Entzute utsa ez dugu aski Gotzaiak; Pitin bat, bederen, Jainkoagana biurtzeko prest gaude, bearrezko aldatetaz egirik, beste era-bateko Gotzaiak izan gaitzen». Esan bearrekoa da, Sekularrak mintza-tzerakoan, adibidez langilleen ordezkariek, aien izketak ez omen zirela guszit akademikoak.

Parisko Batzar Nagusi onetatik, lau Gotzai daude Sinodoan. Ez dira esku utsik joanik. Beste Gotzaien irizietan bakarrik ez daude aberas-tuak; Apaiz eta sekularren sentipen eta burutapenekin ere kontaktu bear-ko dute Sinodoan jokabide bat artzerakoan.

Frantziako gertakizun au izan daiteke gure Elizarentzat ikasbide eta exemplo on.

AROSTEGITAR JOK

EUSKAL FOLKLOREAZ ZERBAIT

NAZIOARTEKO MUGIMENDUA

Nazioarteko folklore mugimendua aro berri bat ezagutzen ari da. Gaur egun ez dago lehenean geratzerik. Folklore ihardunaldiak gero eta sarriago erabazten ari dira, azterketak ugaltzen eta erakusketak eraberritzen. Oinarritutara jo behar larri bat sumatu dute non-nahiko taldeek, eta munduan haren azen urteotan nagusitu den giro hau kutsatzen hasia da Euskal Herriko bazterrek ere.

Duela hamarren bat urte, goragoko kultur mailarik urratu gura-rik Euskal Herrian zabaltzen zen folklore gutiespena, itrisia da oraingoz bere munorik gorenera. Zenbait urteren buruan urok baretu dira, eta euskal folklorea berriro ere hasia da euskal nortasunaren barruan zor zaien tokitxoaz jabetzen.

SUSTRAI BILA

Folkloreak —eta gure kasu honetan euskal folkloreak— azken urteotan bereganatu ahal izan duen garrantzia ez da kasualidade hutsa izan, ez eta ezin besteko pausoa ere, zenbait folkloreak eta azterlarien lan isilaren ondorio baizik.

Euskal folklorea, beste hainbat herriakoa bezalaxe, behin eta berri-ri gauza berberak errepikatuz, ito behararen beharrez aurkitzen zen, betiko betikotan arituz eta kanpoko zein barrukoak aspertaraziz.

Pauso heririk urratu beharra zegoen, oinarritutara jo, eta herri xumearen adiarazpen bereziak bildu eta aztertu. Folklorea herri baten izatearen erakusgarri bihurtu zedin, eta ez amaika urtetako inertzia motel baten lekuko.

BILKETA ETA AZTER-LANA

Hasera batez kultura (2) giro batek folklorea mugimendua bazter-razazi bazuen ere, kultur maila berberak erakarri du folkloreak inoiz baino gehiago arduratu beharra, ez, noski, betiko topikotara itzultzeko, ikerketa eta istudio sakonetan barrena abiatzeko baizik.

Lizunetz eta gutiespenez josirik zelozkigun dantza motak behar ge-rituen eraberritu. Egiazko moldenak eta hainbat urtez alferrik galduta-koak jakintza-galbahetan berezi. Autore zaharretara jo, tokian to-

kiko usadioak aztertu, txistulari eta dantzari nagusiei entzun.

Azken batez, material guzti ho-ri bildu eta taxutu, aldizkarietan jakinarazi (horretarako aldizkari aproposak sortu behar izan dira), eta hainbat salotan herriari berari berriro ere eskaini.

TALDE NORTASUNA

Guzti hau gertatzen ari zen ar-teen, dantza eta txistulari taldeak gero eta gehiago ziren Euskal He-rrian. Abiada honetan, taldeen ugalt-zeak ez zuen geldimurik izan, kul-ter (edo sasi-kultur) mugimendua-ren eragina ez bait da eskualde guztietan berdina izan.

Bataz beste nabari da, euskara gehienbat galdu duten eskualde-etan, euskaldun iraun dutenetan baino dantza eta txistulari talde gehiago sortu dela. Gertaera hau folkloreakeriatzat jo dezake norba-tek, eta, izan ere, hala izan dai-teke zenbaitetan. Hala ere, eus-kara galtzea ez da beti herriari herri erantsi behar zion zama (Bizkaiko zenbait herri lekuko, kanpoko jendea neurrik gabe ho-rrer urte gutitan «ortza», esate baterako), eta, bestalde, folklorea gerta dakiok hainbati, berak nahi duen eta hautatuko lukeen nortasunaren ezagutza bakarra.

Edozein modutan, arrazoi batez zein bestez, ehundaka talde bada-go Euskal Herrian, eta guztiak ez dira berdintsu naharmendu gure folkloreaken eraberritze honetan. Talde nortasun berezi batez jabe-tu direnak alpatuko baditugu —eta zerrenda osotua azaltzeko— asmo-rik ez dugu—, alpagarri dirateke edozeinentzat ORAI BAT (Baiona), GOIZALDI eta ARGIA (Donos-tia), ANDRA MARI (Galdakano), ELAI-ALAI (Portugalete), BIZKAI TALDEA etab., guztien ekintza, metodologia eta helburuak hildu berean abiatzen ez badira ere.

"BIZKAI" TALDEA

"Bizkai" Taldea aipatu dugu, eta, behar bada, aipamen luzetxo-a-goren bat merezi du, sortu berria delako, alde batetik, eta hainbat talde txikiren elkarre gisa sortua delako, bestetik, era honetan Euskal Herrian sortzen den lehen taldea, seguru asko.

Taldean ugaritasunak gehiegie-ria erakarri du zenbait kasutan. Hainbat talde txiki ez du, bes-talde, luzaro iraun izan. Toki eta zuzendari eza zenbaitetan... hain-

bat hilabetetan saiatu eta, non dantza egin gero ez, bestetan... funtsean, zer eskaini guti zutela-ko, gehienetan.

Eta, hain zuzen, sakabanaturik baino elkar lanean ondorio onura-garriagorik izan daitekeelakoan, hamabi dantza talde bildu eta el-kartu ziren, "Bizkaiko Talde Ba-tuak" delakoa sortaraziz. Beren lehen aurkezpena Basaurin egin zuten, iaz, urriaren 25ean.

"Bizkai" edo "Bizkaiko Talde Batuak" deitu elkarre hau, gure herri txikitzen galdut doazen dan-tzak eta obiturak Euskal Herri osoaren aurrean aurkeztu asmoz sortu zen. Kondaira, mitologia eta gainontzekoak aztertu, antzinako jakkerak arakatu, dantza mota guztiak batu; solinuk osotu, eta dato guzti honekin fitxero oro-ko bat egin nahirik.

BIZKAI TALDEAREN HAINBAT SAIO

Zatika baino ez bada ere, birri-tan (Berriz eta Arizkun) izan dut Bizkai Taldea ihardunetan ikusteko beta, eta bietan ikusi ahal izan dudana gertatu esan dezaket, Bizkai Taldearen saioak gehiago direla kalek kale eta zelairik zela aurkeztekoak, antzokiren batetan lau hormatan sartzekoak baino.

Lehen eta behingoz, ez da dan-tza talde soil bat, gure folklorea-ren hainbat alderdiren adiaraza-garri baizik. Esate baterako, edo-zen bat dantza mota eta soin- des-berdin ezezik, Lantzeko Ihauteria ere folklorea saio bezala muntatu du, herri-rik herri azaletu eta uler-taraziz. Hainbat, Lantzeko Ihauteri hau programan badu ere, bere saiorik gehienak Bizkaiko herri-aldeari atxikiak dira, bere dantza-ri, dultzaina-jole edo trikilitariak, esate baterako, ez bait dira talde batetako interprete hutsak, lehe-nagotik ere nor berean aritua bai-zik.

Dantza saio bitxirik badu —Ez-pala-dantza, Erregelak etab.—, bai-na ni neu gehien liluratu nauena zera izan da, Dantzari-Dantza egi-terakoan, txistuz lagundu beha-rraen, pandero eta koplari batez lagundu ohi dutela alegia, herri bertso zaharrez baliatuz (bertsoak nahi izan nituen jaso, baina ez zizkidaten eman, nik neuk dena argitara emateko mania dudalako, batetik, eta TXISTULARI aldizka-rian nahi luketelako azaldu, bes-tetik, Zilegi eta arrazoizko zaie, noski).

HISTORIAREKIN AURKITU

"Historiarekin aurkitu" delako esaldi hau ez da nerea, ez, baina ankeran datorkigu lantxo hau no-labait bi hitzetan laburtzekotan. Euskal folklorea harenegara begi-ra ari zaigu azken bolara hone-tan, gure izatearen muina aurki-tu nahirik, gure egiazko adiaraz-penen egarri.

Eta, folklorea aipatzean, ez naiz dantzaz edo soinuz soil soil ari, geure agerraldi guztiez baizik. Hor-hemen eginiko solasaldietan ikusi ahal izan dugunez, harriga-ri da, esate baterako, zein hurbil dauden elkarrengandik Joan Mari Mendizabal (Barakaldoko), Txis-tulari Elkarteak idazkaria, eta Eu-genio Arozena (Iarzuarra), In-txixu Antzerki Taldeko zuzenda-ria. Gai guztiz desberdinez ari di-ra, eta, hitz eta helburu berdin berdinak darabilzkite, ordea!

Eta, gorago joko badugu... ez ote digute funtsean bide berdina erakutsi, Jose M. Satrustegik, Jo-xemiel Barandiaranek, eta beste hainbatek?

"Historiarekin aurkitu". Ez da guti, ez, Baina, horregatik, ezin dezakegu gutiagorik ere egin!

L. A. Aranberri



Arratiako alboka
Ibarruriko trikiritza lagun



Aurrekaldean «Txatxo» bat eta «Ziripot» lodikotea
Atzekaldean, «Miel Otxin» erraldoia



Dultzaina. Juan Bilbao, Mañariko artzaina, Alta semeak ari